

AGNH- REN DETEKZIO GOIZTIARRA ETA

HEZKUNTZA ARRETA LEHEN

HEZKUNTZAKO IKASGELETAN.

IRAKASLEENTZAKO LAGUNTZA ESKULIBURUA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Santamaria Gomez, Elixabet.

ZUZENDARIA: Rodríguez Fernández, Arantzazu.

2018/2019

LABURPENA ETA HITZ GAKOAK

Arreta Gabeziagatiko Nahasmendua eta Hiperaktibitatea (AGNH), gaur egungo hezkuntza sistemaren errealitatea da eta eskoletan dauden ikasle askorentzat arazoa bat da. Horregatik, nahitaezkoa da ikasle talde baten irakasle eta tutoreek, umeen ezaugarriak ezagutzea, ikertzea eta hausnartzea, irakaskuntza- ikaskuntza prozesu egoki bat emateko. Ikasleren bat nahasmendua edukiz gero, irakasleak oso argi izan behar ditu ume horren ezaugarriak, ondoren, estrategia egokiak aplikatzeko. Horri esker, umearen hezkuntza beharrak asetzea, integrazioa lortzea eta garapen pertsonala eta soziala bermatzea lortuko da.

Lan honen bitartez Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako irakasleek AGNH duten umeekin lan egiteko dituzten beharrak ezagutzeko itaunketa bat egin da, non gaiarekiko informazioaren, ezagutzaren eta lan egiterako orduan dituzten beharren inguruan ikertu den. Hori eginda, eta irakasle horien beharrak ezagututa, AGNH duten umeen ezaugarriak ezagutzeko eta horiekin aplikatu daitezkeen estrategiak barnebiltzen dituen manual bat eraiki da. Manual horri esker, irakasleek ume horiek identifikatzeko ezaugarriak ezagutuko dituzte, lehenbailehen detekzioaren prozesuarekin hasteko. Ebaluazio psikopedagogikoaren prozesua abian dagoen bitartean eta irakasleek ume horiekin lanean jarraitzeko asmoz, umeak laguntzeko eta beraiekin lan egiteko estrategiak eta aholkuak agertzen dira.

Hitz gakoak: Arreta Gabezia eta Hiperaktibitateagatiko Nahasmendua (AGNH), detekzio goiztiarra, Lehen Hezkuntza, irakasleak eta irakasleentzako laguntza eskuliburua.

RESUMEN Y PALABRAS CLAVE

El Trastorno por Déficit de Atención e Hiperactividad (TDAH) es una realidad en el sistema educativo actual y es un problema para muchos estudiantes en las escuelas. Por esta razón, es necesario que los maestros y tutores de un grupo de estudiantes conozcan, estudien y reflexionen sobre las características de los niños para proporcionar un buen proceso de enseñanza-aprendizaje. Si un estudiante tiene TDAH, el maestro debe saber claramente cuáles son las características de ese niño, para luego aplicar las estrategias apropiadas. Esto permitirá satisfacer las necesidades educativas del niño, lograr su integración y garantizar su desarrollo personal y social.

A través de este trabajo, se ha realizado un estudio sobre las necesidades de los docentes de Educación Primaria en el País Vasco para conocer las necesidades de su trabajo con el TDAH, en el que se han analizado las necesidades, la información y las dificultades que tiene los profesores sobre el tema. Después de ver los resultados, se ha hecho un manual que incluye las estrategias que se pueden aplicar para conocer las características de los niños con TDAH y sus necesidades educativas. Este manual permitirá a los maestros y maestras identificar las características de estos niños, dando comienzo al proceso de detección temprana. Mientras la evaluación psicopedagógica está en proceso, los maestros y las maestras tienen que continuar trabajando con estos niños y en el manual también aparecen estrategias y consejos para ayudar y trabajar con los niños.

Palabras clave: Trastorno por Déficit de Atención e Hiperactividad (TDAH), detección precoz, Educación Primaria, profesores y manual de ayuda para el profesorado.

AURKIBIDEA

LABURPENA ETA HITZ GAKOAK.....	2
AURKIBIDEA	4
0. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	5
1. MARKO TEORIKOA.....	7
2. IKERKETA	23
a. METODOA	23
b. PARTE HARTZAILEAK ETA NEURTZEKO TRESNAK.....	23
c. PROZEDURA.....	24
d. ANALISI ESTADISTIKOAK	24
3. IRAKASLEENTZAKO LAGUNTZA ESKULIBURUA.....	33
A. HELBURUAK.....	33
B. HARTZAILEAK.....	33
C. ESKULIBURUAREN EGITURA	33
4. ONDORIOAK	35
5. ERREFERENTZIAK	36
6. ERANSKINAK.....	39
6.1. ITAUNKETA	39
6.2. IRAKASLEENTZAKO LAGUNTZA ESKULIBURU OSOA	42

0. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Arreta Gabeziagatiko Nahasmendua eta Hiperaktibitatea (AGNH) jatorri neurobiologikoa duen eta haurtzaroan azaltzen den nahastea da. Nahasmendua hiru sintoma desberdinekin ager daiteke, arreta mantentzeko ezintasunarekin, gehiegizko mugimenduarekin, hau da, hiperaktibitatearekin eta oldarkortasunaren kontrol gabeziarekin (EUSARGHI, 2015).

Ameriketako Psikiatria Erakundeak 2002. urtean egindako nahasmendu mentalen sailkapenaren arabera AGNH, Arreta Gabeziagatiko eta Jarrera Asaldatzailearen sailkapenaren barruan dago. Heziberri 2020 dekretuak dio, eskolako ikasle guztiek hezkuntza aukera berdintasuna eta laguntza curricularra eta pertsonala izateko aukera izan behar dutela, haien gaitasunen arabera garapen pertsonal eta akademiko onena lortzeko, aniztasuna kontuan hartuta.

Berritzegunearen eskola inklusiboa garatzeko esparru- planak dio, hezkuntza inklusiboa ikasle guztien konpetentziak ahalik eta gehien garatzea nahi duen eta ume horiei kalitatezko hezkuntza izateko sarbidea bermatzen dien eskola bat izan behar dela. Horretarako, goiz detektatzeko eta goiz esku hartzeko prozesuak garatu eta ezarri nahi dituzte, gizarte, osasun eta hezkuntza guneetako eragileekin lankidetzan harituz (Berritzeguneak, 2019).

Baina Hezkuntza sistemak oraindik ahulezia ditu eskoletako aniztasunari erantzuna emateko. Gaur egun araudia eta ikastetxeko laguntza egiturak ez daude prestatuta ikastetxeetako aniztasunari behar bezala erantzuteko eta ondorioz, ezin dira behar bezalako erantzunak eta irtenbideak eman hasierako momentutik. Berritzeguneko aholkulariak zailtasunak dituzten umeetaz arduratzen dira soilik, ikasgela osoaz arduratu beharrian, gauza bera gertatzen da curriculumeko egokitzapenarekin, ez baitira gelako egoerara egokitzen. Halaber, curriculuma egokitzeko lana ikastetxeko Pedagogia Terapeutikoko irakasleari (PT) egokitzen zaio (Berritzeguneak, 2012).

Egun ikastetxeetan, irakasleen prestakuntza AGHN detektatzeko oso eskasa da, Berritzeguneetan eta ikastetxeetan ematen ohi diren formakuntzak ez dute ikasleen ikaskuntza oztupoak gainditzeko antolaketa- estrategia eta metodologia nahikorik ematen. Gainera, askotan irakasle batzuek ez dute zailtasunak dituzten umeetatik ezer espero eta horrek eragin zuzena du ikasle horien jardunetan eta emaitzetan (Berritzeguneak, 2012).

Hezkuntza-premia bereziak dituzten umeak, hala nola, AGNH dutenak, erantzun oso zatikatuak jasotzen dituzte eta askotan desantolatuta. Irakasle tutoreek ikasle batek zailtasunak dituela detektatzen duenean espezialistarengana edo terapeutarengana bidaltzen dituzte. Erantzuna jaso arte, ume hauek ez dute laguntzarik jasotzen eta jasotzen dutena ikasgelatik

kanpo eta banaka jasotzen dute (Berritzeguneak,2012). Irakaslea ebaluazio psikopedagogikoaren prozesuan laguntzaile moduan bakarrik parte har dezake, ikaslearen jarreraren eta ibilbidea akademikoaren inguruko informazioa emanaz. Diagnostikoa egiteko, beharrezkoa da AGNHren sintomak giro batean baino gehiagotan ematea, adibidez: eskola, etxea eta eskolaz kanpoko ekintzetan (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Irakaslea ikasle batek AGNH izan dezakeela detektatzen duen momentutik umeak espezialista batengandik diagnostikoa jasotzen duen momentura eta Berritzegunearen laguntza jasotzen duen momentura arte, irakasle tutoreak ez du baliabiderik gelan ume horrekin eta gelako beste ikasleekin lan egiteko. Arazoa ikusita, prozesu horretan zehar irakasleari laguntzeko, eta Hezkuntza Sistemak duen hutsuneari erantzuna emateko, AGNH duten umeen ezaugarriak eta horiekin lan egiteko estrategia eta metodologia erabilgarriak azaltzen dituen euskaraz egindako manual bat egingo da.

Jarraian, Gradu Amaierako Lan honek duen egitura azalduko da. Lanaren lehenengo atalean AGNHren inguruko marko teoriko bat dago, non nahasmenduaren deskribapena, ezaugarri kognitiboak, sintomak, azpimultzoak, prebalentzia, kausak, ebaluazioa, tratamendu ohikoenak eta detekzio goiztiarraren garrantzia agertzen diren. Ondoren, nahasmenduaren oinarri teorikoa ezagutu ondoren, Euskal Herriko ikastetxe desberdinetako irakasleei bideratutako ikerketa bat eginda. Bertan, errealitatearen analisi bat egin da, non irakasleek AGNHren inguruan duten ezagutzaren eta nahasmendu hori duten umeak detektatzeko eta horiekin lan egiteko dituzten baliabideen inguruan ikertu den.

Ikerketaren emaitzak aztertu, ordenatu eta grafikoak sortu eta gero, ikastetxeetan dagoen beharra ikusi da eta horren ondorioz, irakasleentzako baliabide bat sortu da. Manual horretan, irakasle batek AGNH izan dezakeen ume bat detektatzeko estrategiak ematen dira eta ume horrek ebaluazio psikopedagogika jasotzen duen bitartean, berarekin lan egiteko estrategia eta metodologiak ere.

Lanaren azken atalean, Gradu Amaierako Lanaren ondorioak aurkeztuko dira. Bertan, ikerketaren bitartez eskuratutako datu adierazgarrienak adieraziko dira eta horrez gainera, manualaren sorkuntzak Hezkuntza Sistemak izan dezakeen eragin positiboa. Amaitzeko, aipatzeko da ere laneko azken bi atalek, alde batetik erreferentzia bibliografikoak, eta bestetik eranskinak jasotzen dituztela.

1. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, ikertuko den gaiaren inguruan hitz egingo da, alde batetik, Arreta Gabeziagatiko Nahasmendua eta Hiperaktibitatearen sintomen, ezaugarri kognitiboan, azpimoten, etiologiaren, kausen eta AGNHren ebaluazioaren eta tratamendu ohikoaren inguruan eta, beste alde batetik, AGNHren detekzio goiztiarrak Lehen Hezkuntzako ikasgeletan duen garrantziaren inguruan.

1.1. AGNH-aren deskribapena, sintomak eta ezaugarri kognitiboak.

Azken hamarkadan AGNH garrantzia handia hartu du hezkuntza arloan. Nahasmendu honek jatorri neurobiologikoa du eta nahiz eta orain dela urte batzuk pentsatu haurren nahasmendua zela eta helduaroan desagertzen zela, orain, ikerketek nahasmendu kronikoa dela eta bizitza osoan zehar irauten duela diote (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010). Emilio Garridok (2017) AGNHren definizio zehatz bat eman zuen. AGNH lobulu frontaleko disfunzio bat da sistema linbikoarekin harremanak dituen, garapen luzeko memoriaz eta sistema errepresentatiboaz arduratzen dena. Garuneko eskualde horretan disfunzioa izateak kognizioaren eta emozioen kontrola ez izatea ekartzen du eta, horren ondorioz, jarrerarena ere.

AGNH haurtzaroaren eta nerabezaroaren alterazio psikopatologiko ohikoena da. Zabartasuna, hiperaktibitatea eta oldarkortasuna jokabide nabarmenak dira nahasmendu honetan. Asaldura presente dagoela esan dezakegu, aurreko ezaugarriak frekuentzia eta intentsitatea handiagoa dutenean adin eta garapen maila berdineko umeekin konparatuz. Zabartasun, hiperaktibitate edo oldarkortasun sintomak zazpi urte bete baino lehen agertzea garrantzitsua da eta horiek inguru bat baino gehiagotan agertzea: eskolan, familian etab. (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Arreta arazoak ikus daitezke ume hauek zailtasun handiak dituztelako arretari eusteko, bai jolasten duten bitartean, baita eskolako etxerako lanak egitean. Asko kostatzen zaie arauak eta instrukzioak jarraitzea, haien lana nahastuta egoten da eta maiz gauzak ahazten dituzte. Guraso eta irakasle batzuek diote dirudiela ume hauek ez dutela entzuten esaten zaioena, ez dutela bukatzen egin beharrekoa, ez dutela arreta mantentzen, edozer gauzarekin entretenitzen direla eta askotan jarduera batetik bestera oso azkar igarotzen direla. Eskolako jardueretan ikasle hauek nahigabeko akatsak izaten dituzte, horien artean irakurtzen duten bitartean hitzak jatea edo ariketetan galdera batzuk ahaztea. Edozein zaratak edo mugimenduk haien arreta erakartzen du egiten ari ziren jarduera eteten. Ume hauek modu ez-iraunkorrean lan egiten dute (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010; Buisán, Carmona, García, Noguer, eta Rigau, 2014).

Hiperaktibitatea da ume hauek duten beste jokabide bat eta ikus daitezke asko mugitzen diren umeak direlako. Askotan zailtasunak dituzte beharrezkoa denean eserita egoteko, gehiegizko mugimendua izaten dute, korrika eta jauzi egiten dutelako egoera eta leku desegokietan. Guraso eta irakasle askok ume hauek besteak baino askoz ere geldiezinak, urduriak eta mugituak direla diote. Ume hauek eskuak eta oinak mugitzen dituzte, mugimendurako beharra dutelako. Batzuk ez dakite jolas lasaiekin jolasten mugimendu gutxi eskatzen dutelako. Eskuetan duten edozein gauzarekin jolasten dute eta maiz gauzak lurrera erortzen zaizkie. Bestalde, oso ume hiztunak eta zaratatsuak izaten dira eta edozein gauza ukitzeko beharra izaten dute. Haien motrizitate mehea eta lodia sarri ez da oso ona eta horren ondorioz, haien lanetako betearazpena eta aurkezpena ez dira oso onak izaten (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010; Buisán, Carmona, García, Noguer, eta Rigau, 2014).

AGNH duten umeen hirugarren jokabide nabarmenena, oldarkortasuna da. Haur hauek asko hitz egiten dute, edozein gauzaren inguruan azalpen bat ematen dute eta galdera bat egiten zaienean, bukatu baino lehen erantzuten dute. Elkarrizketa batean askotan beste pertsonak eteten dituzte horrek sortu ditzakeen ondorioak kontuan hartu gabe. Egiten hari diren gauza batek izan dezakeen ondorioen inguruan hausnartzea asko kostatzen zaie eta horrek akatsetan pertseberatzea ekartzen du, hau da, ez dute haien akatsetatik ikasten. Lanak egiterako orduan, ez dituzte ariketen enuntziatuak guztiz irakurtzen eta ez dituzte ariketak ebazteko estrategiarik erabiltzen. Lan bat hasi behar dutenean, askotan galdua ibiltzen dira, inguruan duten material guztia zabaltzen dute, zer egin jakin gabe. Zailtasun handiak dituzte inguratzen dituzten egoerak ulertzeko, horregatik egoera batetik bestera salto egiten dute egoeraren eta egoeraren atalen arteko erlazioa ulertu gabe. Jolasetan, asko kostatzen zaie lasaitasunez haien txanda itxarotea bere adineko ikasleekin alderatuta. (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010; Buisán, Carmona, García, Noguer, eta Rigau, 2014).

Arazo hauek heldutasuna lortzeko progresioarekin uztartzen dira, egun funtzio exekutibo nagusiarekin harremana duena. Hau, garuneko alde frontalean kokatzen da eta informazioa azkartasunez barneratzeko ahalmena du. Ume hauek heldutasuna lortzeko arazoak dituztenez, ezin dute haien adineko umeak bezala informazioa barneratu eta horrek estimulu edo egin beharren aurrean motibazio pobrea izatea dakar, gehienbat monotonoak direnean (Garrido, 2017).

Lehen azaldu denez, arreta falta, hiperaktibitatea eta oldarkortasuna dira AGNHaren ageriko ezaugarriak eta asalduraren alde ikusgarria azaleratzen dute. Baina ikerketek nabarmendu dute ezaugarri hauez gain AGNH duten pertsonak bestelako alterazio eta asaldurak izan ditzaketela haien funtzionamenduan eta egokitzapenean. Horiek Zaigler anaiek (2006) metafora baten

bitartez laburbildu zuten “*El Iceberg del TDAH*” izeneko irudian. Haien irudian ikus daiteke izozmendiaren 1/8 besterik ez dela ikusgai, bertan, asalduraren ezaugarri zentralak daude eta ezkutatuta uzten dute garrantzitsuak diren ezaugarri asko, oso garrantzitsuak direnak pertsonaren garapenerako eta egokitzapenerako. Ezkutu geratzen diren ezaugarrien aretan, jarreraren eragina duten neurotransmisoreen falta, funtzio ejekutibo ahula, denboraren pertzepzioa asaldatuta, loaren alterazioa, bi eta lau urte bitarteko garapenaren atzerapena, alterazio komorbidoak, zailtasun nabarmenak ikaskuntzan, frustraziorako tolerantzia gutxi eta sari eta zigorren ikaskuntza eza agertzen dira (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

1.2. AGNH-aren azpimultzoak

Osasun mentaleko profesionalak DSM-IVaren eta horren berrikuspenaren, DSM-Varen bitartez antolatzen dira nahasmenduak eta gaixotasunak sailkatzeko. Manual horrek Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko asaldura hiru azpimultzoetan sailkatzen du. Lehenengoan arreta falta nagusitzen da (%20-30ko frekuentzia), bigarren azpimultzoan hiperaktibitate- oldarkorra nagusitzen da (%10-15ko frekuentzia), eta hirugarrenean aurreko bi ezaugarriak aldi berean nagusitzen dira eta beraz, konbinatu izena hartzen du. Azkeneko hau ohikoena da, diagnostikatzen diren pertsonen % 50- 75 aretan dagoelako (Amador eta Forns, 2001 eta Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Badago arlo honetako profesionalak erabiltzen duten beste manual bat, horren izena CIE-10 da eta Munduko Osasun Erakundeak sortutakoa da. Honek dio aurreko hiru azpimultzoei laugarren bat erantsi ahal zaiola, jarreraren nahasmendu espezifiko behatzen denean (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

1.3. AGNH-aren prebalentzia

Azken urteetan egindako ikerketek aurkitu dute AGNH herrialde eta talde etniko guztietan aurkitzen dela (Amador eta Forns, 2001). “*Manual de diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales*” (DSM-IV) izeneko manuala erabiltzen denean AGNHaren prebalentzia umeetan %3 eta %6 bitartekoa da. Hiperaktibo-oldarkor azpimultzoa (AGNH-H), ezohikoena da eta umeen %15ak pairatzen du. Zabartasuna (AGNH-D) gailentzen den azpimultzoan diagnostikoen %20-30 artekoa da eta nahiz eta gizonezkoek pairatu gehienbat emakumeak dira pairatzen dutenak. Hau azpidiagnostikatuta egoten da, nabarmentzen dena eskola porrota delako eta ume hauek jarrera eta diziplina arazoak sortzen ez dituztelako. Bukatzeko, diagnostiko konbinatua dutenen prebalentzia (AGNH-C) %50-75 bitarteko da, azpimultzo ohikoena bihurtuz. Diagnostikoa,

Munduko Osasun Erakundearen hamargarren sailkapenaren bitartez egiten denean (CIE-10), prebalentzia indizeak eskola adinean dauden umeen artean murrizten dira eta %1,5-2,5 bitartekoak izaten (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010; Flores, 2014).

Nolanahi ere, prebalentzia tasa nabarmen alda daiteke, DSM-IV manualaren diagnostiko irizpideak erabiltzean edo bakarrik sintoma kopurua erabiltzean; erabiltzen den ebaluazio tresnaren arabera (elkarrizketa, behaketa edo balorazio eskalak) edo informazio iturriaren arabera: gurasoak, zaintzaileak, irakasleak etab. alda daiteke. Prebalentzia indizeak, kultura eta esparru geografikoaren arabera ere desberdinak izan daitezke. Lortutako prebalentzia tasa irakasle eta gurasoengandik eskuratutako informaziotik %1 eta 20 bitartekoa da; informazioa eskuratzeko modua, ebaluatutakoak emana bada, tartea %1 eta 10 artekoa da (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Nahasmen hau ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino, bai lagin komunitarioan (3:1) baita lagin klinikoa (9:1). Autore batzuen ustez, sexuen arabera prebalentzia berdina da. Hau azaltzeko bi arrazoi ematen dituzte, lehenengoa, hiperaktibitate eta oldarkortasun sintomak behatzea errazagoa dutela zabartasunaren sintomekin alderatuz eta bigarrena, prebalentziaz egin diren ikerketa klinikoetan, gehiengoa mutilak zirelako, hauek maizago joaten direlako kontsultara, jarrera edo ikaskuntza arazoak dituztelako (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

AGNHren garapenean prebalentzia konstante mantentzen da, gutxi gora behera, nahiz eta umeen heldutze prozesuan sintomen presentzia murriztu. Umea Haur Hezkuntzan dagoenean hiperaktibitate eta oldarkortasun sintomak nagusitzen dira. Lehen Hezkuntzan hasterakoan zabartasuna nabaritzen hasten da eta nerabegarora ailegatzean hiperaktibitatearen sintomak murrizten hasten dira, guztiz desagertu gabe, arreta faltari nagusitasuna emanez (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010; Flores, 2014).

1.4. AGNHrekin lotutako bestelako arazoak

AGNHaren nahasmendua ez da inoiz bakarrik agertzen, modu puru edo garbi batean, ia beti nahasmendu bat atxikita darama (Garrido, 2017). Adinaren eta pertsonaren garapen mailaren arabera dira AGNHri lotutako sintomak. Nabarmentzen direnak, frustraziorako tolerantzia gutxi izatea, amorrualdiak, haserrealdi emozionalak, autoritarismoa, tematia izatea, gehiegizko ekitea beraren nahiak betetzeko, labilitate emozionala, autoestimua arazoak (baxua edo gehiegizkoa). Sarritan, errendimendu akademikoa baxua izaten dute eta horrek arazoak ekar ditzake familiarekin, irakasleekin edo eskola inguruan. Egoera okerrenetan nahasmendua asaldatzailea izan daiteke eta egokitze sozialean, familiarrean edo eskolarrean arazoak sor

ditzake (Amador eta Forns, 2001). Erlazionatutako arazo hauek, kasuen %50 aurki daitezke (Flores, 2014).

Azkenengo ikerketek diote, diagnostikatutako umeen %30 depresio sintomak dituztela, %25 estutasun asaldura dutela, %20 eta 40 bitartean jarrera disozialak dituztela, eta %20 eta 30 bitartean ikaskuntza arazoak dituztela. Honengatik ikerlariak diote AGNH entitate kliniko heterogeneoa dela, bai etiologian, bai arrisku faktoreetan, baita iragarpen potentzial desberdinetan (Garrido, 2017). Gainera, diagnostikatutako umeen ehuneko oso altuak (%35-60) asaldura negatibista desafiatazalea diagnostikatuta dute. (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Badaude bestelako asaldurak AGNHarekin lotuta etor daitezkeenak: %40k inguru Tourette nahasmendua dute; %65-80k garapenaren asalduraren asaldura dute; eskola inguruan eragina izan dezaketen asalduren artean, dislexia eta diskalkulia %8-39k dute eta koordinazioaren garapeneko asaldura %47k. Azkeneko arazo hauek zehaztasuna eskatzen dute diagnostikoan, eskuhartze terapeutiko egoki eta disziplina artekoa emateko (Buisán, Carmona, García, Noguer eta Rigau, 2014).

Asaldura guzti hauek egoteak esan nahi du, AGNH ondo diagnostikatzeko zailtasun handiak egon daitezkeela. Horregatik, umearen garapenari arreta handia jarri behar zaio eta detekzio on bat egin behar dela, umeari ahalik eta tratamendu aproposena emateko. (Garrido, 2017).

1.5. Kausak

AGNHaren kausak oraindik ez dira ezagunak. Ikerketen emaitzek diote jatorri multifaktoriala duela eta bertan faktore genetikoak, biologikoak eta ingurumenekoak parte hartzen dutela. Ikerketa askotan AGNHari lotutako gene batzuk aurkitu dira. Horiek dopamina eta serotoninaren garraioarekin eta jasotzearekin erlazioa dute, nahiz eta lan batzuk egon herentzia poligenetikoa dela esaten dutenak. Badago erlazio handia AGNH eta ingurumen faktoreekin hauen adibide dira: arazo prenatalak eta perinatalak, jaiotzean pisu gutxi izateak, burmuineko lesioak eta haurra jaio baino lehen alkohol, nikotina edo berun kantitate altuetara arriskuan egotea.

Bikiekin egindako ikerketa batzuek aurkitu dute AGNH agregazio familiarra duela, emaitzetan %80k asaldura hau zuela zioten eta, beraz, horrek esan nahi du geneak garrantzi handia dutela AGNHren herentzian. Nahastearen transmisio hereditarioa 0,5 eta 0,9 bitartekoa da, zifra hauek umeen nahasmendu mental ohikoena bihurtzen du (Flores, 2014). Bestalde, ikerketek frogatu dute, AGNH duten umeen gurasoek %10 eta 35 bitarteko probabilitatea dutela asaldura izateko. Kontrako aldean, gurasoetako batek AGNH diagnostikatuta baldin badu, haien

semeak nahasmendu hau izateko probabilitatea %55 eta 57ko da (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Garuneko anatomiaren egiturazko alterazioak ere AGNHren etiologian sar daitezke. Asaldura hau funtzio betearazleen erantzun gabezi baten erantzuna da. Garuneko hiru atal erlazionatuta daude nahasmendu honekin, azal frontala, oinarriaren nukleoak eta zerebeloa, arretaz arduratzen direnak gehienbat. Garezurreko azalaren lodieraren bitartez, garunaren heldutze maila ikus daiteke, kasu honetan AGNH duten umeez atzerapen bat dute, bere adineko beste umeez alderatuta (Flores, 2014).

Ingurune faktorek eta geneen arteko erlazioak eragina izan dezakete patologian eta sintomak azaleratzeko moduan. Ikertutako faktoreen artean dibertsitate soziala dago, hau da, ezegonkortasun familiarra, arazo psikiatrikoak dituzten gurasoak, hazkuntza desegokia, maila sozioekonomiko baxua, baloreen transmisio gutxi, jarrera arau gutxi ezartzeak etab. Esan bezala, hauek eragina izan dezakete sintomen larritasunean baina ez dira inoiz AGNHren kausa izango (Flores, 2014; Buisán, Carmona, García, Noguera, eta Rigau, 2014).

Zailtasun prenatalak eta perinatalak garuneko lesioak sortu ditzakete garuneko garapenaren momentu zehatzetan. AGNH duten umeen amek ohikoak diren baino arazo gehiago izaten dituzte haurdunaldian eta erditzeko momentuan. Lesio prenatalak eta perinatalak aurrealde ildaskatutako bideetan dauden neuronak aldatu ditzakete eta horrek hiperaktibitatea eta arreta gabeziak egotea justifikatzen du. Heldugabetasuna eta jaiotzean gutxieneko pisua ez izateak, %20 eta 30ko frekuentziarekin hiperaktibitatearekin lotzen da (Flores, 2014).

1.6. Ebaluazioa

Atal honetan Ameriketako Psikiatria Erakundearen (APA) eta Munduko Osasun Erakundearen (MOE) AGNHrako diagnostiko irizpideak biltzen dira. Mende honetan zehar AGNHren diagnostikoak izen desberdinak izan ditu, hauek ikerketen aurrerakuntzak nabarmentzen dituzte, nahasmendua besteengandik desberdintzeko aukera emanez. (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura mediku batek egindako diagnostiko kliniko batek determinatu behar du. Horretarako, DSM-IV eta CIE-10 manualak erabiltzen dituzte (Flores, 2014). DSMaren azkeneko bertsioetan, asaldurak “*Transtorno por déficit de atención con hiperactividad*” izena hartu zuen. Hau, zabartasunaren eta jarrera asaldatzailearen asalduraren atalaren barruan kokatzen da. Diagnostikoa egiteko sintomak bi taldeetan banatzen dira, lehenengoa (A1) zabartasuna eta bigarrena (A2) hiperaktibitatea-

oldarkortasuna. Sailkapen honi esker asaldurak hiru azpimultzo izan dezake. Zabartasuna gailentzen denean, A1 betetzen denean baina A2 ez; hiperaktibitatea eta olarkortasuna nagusitzen denean, A2 betetzen denean baina A1 ez eta azpimultzo konbinatua, biak A1 eta A2 nagusitzen direnean (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

APAk (2002) argitaratutako DSM-IVk erabiltzen dituen diagnostikorako sintomak A1 eta A2 multzotan banatuta agertzen dira. Lehenengo atalean (A1) arreta gabeziarekin lotutakoak daude, hala nola, ez du xehetasunetan arretarik jartzen eta nahi gabeko akatsak egiten ditu; jarduera ludikoetan arreta mantentzeko zailtasunak ditu; hitz egiten zaionean ez duela kasurik egiten ematen du; batzuetan ez ditu egin beharrekoen pausuk jarraitzen edo bukatu gabe uzten ditu; jarduerak eta ekintzak antolatzeko zailtasunak ditu; batzuetan beharrezkoak dituen objektuak galtzen ditu; garrantzirik gabeko estimuluekin distraitzen da eta ez ditu eguneroko ekintzak zaintzen.

Bigarren atalean (A2) hiperaktibitatearekin eta zabartasunarekin lotutako ezaugarriak agertzen dira, horien artean, askotan eskuak eta oinak mugitzen ditu; bere ikasgelako eserlekutik altxatzen da; egokia ez den egoeretan korrika eta saltoka ibiltzen da; jolas lasaietan parte hartzeko zailtasunak ditu eta batzuetan, gehiegi hitz egiten du. Zabartasunari dagokionez, ume hauek, galderak bukatu aurretik erantzunak ematen dituzte; txandak errespetatzeko zailtasunak dituzte eta maiz besteen ekintzak eten egiten dituzte (APA, 2002)

Asaldura diagnostikatzeko beharrezkoa da, sintoma batzuk umea 7 urte izan baino lehen agertzea eta bi egoera baino gehiagotan azaleratzea, esaterako: familia eta eskolan. Horrez gain, jarduera sozialaren eta akademikoaren narriadura egon behar du eta ziur egon sintoma hauek beste asaldura batekoak ez direla (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010). Zenbait kasutan, pazientearen historia klinikoa ezagutzea, azterketa fisiko sakon bat egitea eta irakasle eta gurasoek egindako galdeketen emaitzek diagnostikoan lagundu dezakete (Flores, 2014).

CIE-10ak egindako sailkapenaren arabera, AGNHren sintoma nagusiak zabartasuna eta hiperaktibitatea dira. Manual honetan, AGNHk “*Transtorno hipercinetico*” izena hartzen du. Diagnostikoa egiteko beharrezkoa da bi sintomak agertzea eta gainera egoera batean baino gehiagotan aurkitu behar da denbora tarte batean zehar. Balorazioa umearen testuinguruaren, adinaren eta maila kognitiboaren arabera egiten da. Asaldurari atxikita aurkitzen den beste sintoma bat, oldarkortasuna da, diagnostikoa egiteko laguntza eskaintzen duena baina mugatzailea ez dena. Nahasmendu hau diagnostikatzeko, zabartasun eta hiperaktibitate sintomak 6 urte izan baino lehen azaleratu behar izan dira (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Munduko Osasun Erakundeak proposatutako manualean (CIE-10) Asaldura Hiperzinetikoak hiru azpimultzo izan ditzake. Lehenengoa, jardueraren eta arretaren asaldura, bigarrena, asaldura hiperzinetiko disoziala eta hirugarrena, bestelako nahasmendu hiperzinetikoak (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010; Buisán, Carmona, García, Noguer, eta Rigau, 2014).

DSM-V manual berrian adin tartea 7 urtetatik 12 urtetara igo da AGNHaren sintomak hobeto behatzeko. Badaude ikaskuntzarekin harremana duten sintoma batzuk ikasleak Lehen Hezkuntzako etapan zehar garatzen dituenak eta berrikuntza honi esker horiek detektatzeko aukera dago (Calderon, Ruiz, Lenz, Sosa, Lopez, Melo, eta Waliszewski, 2014)

1.7. Tratamendu ohikoenak

AGNH-ren tratamendua disziplina artekoa eta indibiduala da. Tratamenduan ez da umea bakarrik tratatu behar, horrez gain hiru alderdi garrantzitsu daude: A) eskola giroan eta maila akademikoaren interbentzioa; B) gurasoentzako entrenamendua, AGNH duen umearen jarrerazko arazoak kontrolatzeko eta C) medikazioaren erabilpena (Flores, 2014). Tratamendu hauek guztiak gehienetan aldi berean ematen dira, medikazioaren erabilpenari garrantzia handiago emanez (Garrido, 2017).

A) Eskola giroan eta maila akademikoaren interbentzioa

Eskola giroan eta maila akademikoan egin daitekeen interbentzioa, eskolako orientatzailearen eta irakasleen arteko elkarlanaren esku dago. Hasteko, orientatzailea, gurasoen baimenarekin, irakasleari umearen ebaluazio psikopedagogikoaren informazioa emango dio, gelan zer nolako funtzionamendua hartu behar duen eta umearen jarrerak aztertzeko plana azalduko dizkio. Horretaz aparte, AGNH duten umeen inguruko informazioa emango dio, bai dituzten jarreraren inguruan, bai izan ditzaketen bestelako arazoengatik inguruan ere (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Prozesuarekin jarraitzeko, ikaslearen kokapen egokia zehaztuko dute eta irakasle eta ikaslearen artean egongo diren arauen esleipena egingo da, hala nola: arreta bereganatzeko keinuak, aginduak gogoratzeko teknikak, jarrera egiaztatze momentuak, sarien erregistroa etab. Aldi berean, irakasleak umearekin harremana hobetzeko materiala eta erabili beharreko metodologiaren inguruko materiala jasoko ditu (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Irakasle moduan, egokia litzateke umea ezagutzeko saiakerak egitea, haren interesak, gustuak, motibazioak zeintzuk diren jakitea; bere alde indartsuak eta ahulak ezagutzea, kontuan

hartuta AGNH duten umeek emozionalki oso sentikorrak direla. Umearentzat eredu izatea, lasaitasunez, arretaz eta giro egituratua erakutsiz. Umeak izandako arrakastaz eta porrotetaz hitz egitea; beraren parte hartzea ikasgaietan eskatzea, eginkizunak emanez; umeaz dituen itxaropenak erakustea; gela ondo antolatzea eta jarrera kontrolatzen laguntzen duten arau zehatzak esleitzea. Hauek guztiak ere, ikaslearen jarrera hobetzen lagundu dezakete (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Irakasleak irakasle diren heinean AGNH duen ume bat dagoela jakin behar dute eta psikologo, psikopedagogo edo behar berezietako irakaslearekin elkarlanean jardun behar dute. Irakasleak gai izan behar dira limiteak zigorrek baino ezartzeko, ikaslearekin eztabaidak alde batera uzten, umearen arazoetaz hitz egiteko aukera emanez eta tutorearekin batera lan egiten erabakiak elkarrekin hartzeko. Halaber, tutorea edo irakasle zehatz bat izan behar da, zigorretaz arduratzen den bakarra. AGNH duen ume bat gelan egonez gero, irakaslea umeak egindako lana maiztasun handiagoz gainbegiratuko dio eta egindako lanaren kalitatean kantitatean baino zentratuko da. Umearen ezintasun eta porrot egoerak alde batera uzten saiatu behar da lorpen txikiak ikusarazten. AGNH duen umearen desantolatzea aurreikustea eta lanak egiteko eta entregatzeko epea luzatzea edota entregatzeko beste bide batzuk aukeran ematea ere irakaslearen esku dago (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Gelaren antolakuntzaren inguruan umeak egokia den leku bat behar du, non bere arreta galtzeko arriskua txikia den eta ikaskideen lan erritmoa errekaratzeko arriskurik ez dagoen. AGNH duen umearen mahaia irakaslearen mahiarengandik hurbil egon behar da, beharrezkoa denean laguntza emateko. Umearen lan egiteko giroa egokia izateko, lasaitasunez egon daitekeen leku bat izan behar da, besteen lana eragozteko arriskurik ez dagola, zaratengandik urrun dagoela, arbela ondo ikusteko aukera duela eta AGNH edo bestelako nahasmendurik ez duen ume bat ondoan duela bermatuz. Egokia litzateke ume hori batzuetan lekuz aldatzea baina beti ere aurretik esandako ezaugarriak betez, ume hauek berrikuntzak behar dituztelako. Orobat, ikasleen arteko harremanak aztertu behar dira, egingo diren elkarketak ume guztientzat onak izateko eta elkartzeko lehergarriak saihesteko (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010). Gelan ikaslea lasaitzeko txoko bat sortzea egokia litzateke, egunero denbora tarte bat erabiliz umea leku horren funtzionamendua eta zentzua ezagutzeko (Angulo, Fernandez, Garcia, Ongallo, Prieto eta Rueda, 2008)

Eskola giroan eta maila akademikoan egin daitekeen interbentzioarekin jarraituz, aginduak eta azalpenak emateko biderik egokiena, irakasleak umea ezaugarri garrantzitsuenetatik eramatea da. Argibideak umearengandik hurbil eman behar dira, ikaslearekin kontaktu bisuala izan behar du, ahots tonu lasaia erabili behar du eta jarraibideak

argi eta segurtasunez eman behar ditu. Argibideak ematerakoan, esaldi sinpleak erabili, hitz garrantzitsuetan ahots tonua aldatuz, umea funtsezko ezaugarriak ulertzen laguntzeko. Horrekin batera argibide bisualak erabili, esaterako, arbelean emandako azalpena koloreekin indartu. Posible izatekotan, umeari ulertutakoa azaltzeko eskatu, ziurtatzeko umeak jarraibideak ulertu dituela (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Irakasleak erabili dezakeen metodologiaren artean, metodologia aktiboa dago, saio magistralak jarraitzeko zailtasunak dituztelako, haien arreta eralgitzen delako azalpena aurrera joan ahala. Saio magistralak erabiltzekotan, ikaslearengana noizbehinka hurbiltzea gomendagarria da. Mota desberdinetako estrategiak erabiltzeak ikaslearen arreta egin beharreko lanetan zentratzen lagunduko diote batez ere, ikaskuntza kooperatiboak erabiliz. Irakasleak aurkezpenak egiterakoan, denbora tarte laburrean egin behar ditu, orden logiko bat erabili behar du, eduki zehatzei garrantzia emanez. Era berean, lanak egiterakoan, irakasleak ikasleari erakutsi behar dio, bakarrik beharrezkoa duen materiala hautatzen, hau da, koaderno eta arkatza, bestelako materiala, erregela, koloreetako arkatzak eta abar, arreta galtzeko arriskua sor dezaketelako. Koloreekin azpimarratzeko teknikak oso baliagarriak dira, baina prozesua moteltzeko arriskua dakarte (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Beste ikaskuntza estrategiak hala nola, estrategia mnemoteknikoak (erritmoak, kodigoak, akronimoak...) ikaskuntza finkatzeko balio dute. Halaber, informazioa egituratzeko, eskemak dira gehien erabiltzen diren egiturak. Alderdi emozionalek, ikaslearen arreta mantentzen laguntzen dute, haien bizitzetako ezaugarriak gelako girora hurbiltzea, haien motibazioa handitzeko aukera ematen dute. Horri lotuta, teknika desberdinekin umearekiko kontaktu sentimentala mantentzea, adibidez, berarengandik hurbil pasatzea, zein orrialdeetan dauden esatea edo egiten dagoenaren inguruan eta ulertu duenaren inguruan interesa ipintzea lortuko da (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

AGNH duen ume baten arreta mantentzen laguntzeko, irakasleak egokituta dauden saioak izatea egokia da. Egokitzapen horien artean, ikaslearen materiala, denbora, zereginak eta etxerako lanak daude. Ikaslearen materialari dagokionez, ikasleak behar duena bakarrik izan behar du mahi gainean. Denborari dagokionez, aukera ematea lan egiteko tarteak epe motzekoak izateko, tartean altxatzeko, beti ere, besteak zirikatu gabe edo behar izatekotan aukera eman gelatik ateratzeko. Eginkizunak luzeak badira, atalka egiteko aukera ematea eta bitartean lorpen txikiak eskuratzea. Lan hauek berritzaileak izan behar dira, monotonoak diren eginkizunak arreta galtzea ekar dezaketelako. Irakasleak eginkizunak antolatzen eta lehenetsunak ezartzen lagunduko du eta horrez gain, arazoak atalka ebazteko teknikak erakutsiko dizkio, bere lana errazteko. Etxerako lanen kantitatea txikitzea gomendagarria da, bakarrik ikaskuntzarako

erabilgarrienak bidaltzea eta saiatzea gelan bukatu ez diren lanak etxera ez bidaltzen, zigor moduan hartuko baitituzte (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010; Rabadán eta Giménez, 2012).

Arretarekin jarraituz, gomendagarria da ikasleak errendimendu altuan duen egoerak identifikatzea eta horren arabera bidaliko zaizkion lanak egituratzea. Normalean ordu horiek goizeko orduetan kokatzen dira, atsedendia baino lehen. Arreta mantentzeko gaitasun txikia izaten dute eta 10- 15 minutu baino gehiago duten eginkizunak zatitzea gomendatzen da (Angulo, Fernandez, Garcia, Ongallo, Prieto eta Rueda, 2008). Arreta berriz bereganatzeko, irakasleak mantendu beharreko arauak gogoratuko ditu, horiek gelako leku ikusgarri batean kokatuta egongo dira eta arreta tartean bitartean umeari segurtasuna emango diote, zer egin behar duen jakiteko eta berriz arreta bereganatzeko (ADAHIgi, AHIDA eta ANADAHI, 2006).

Ikaslearen lanaren berrikuspenarekin, prozesu metakognitiboen garapena eta barne lengoia hobetzea bilatzen da. Hau lortzeko, ekintzen planifikazioan lagundu behar zaio. Lehenengo urratsa, hasierako eginkizunaren analisi bat egitea da; bigarrena, prozesuaren auto-gida bat egitea; hirugarrena, egin berri duenaren inguruan kontzientzia hartzea; laugarrena, egindako lanaren berrikuspina egitea; bosgarrena, egin duen lanaren inguruan hausnartzeko eta ebaluatzeko aukera ematea; seigarrena, ikaslearekin adostutako arau ez berbalak gogoratzea, jarrera kontrol moduan ; eta azkena, agendaren kontrolean laguntzea: erabiltzen ikastea, idazten duena ulertzeko gai den jakitea, data garrantzitsuak ondo kokatuta dauden ikustea eta abar (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Errefortzu positiboen erabilpena umeak jardueraren ataletan izan duten arretaren arabekoak izango dira. Feedback positiboa momentuan eman behar da eta lanean izandako arreta mailarekiko proportzionala izan behar da. Ikasleari ematen zaizkion mezuak lengoia positiboarekin eman behar zaizkio, umea pertsona moduan baloratuz. Haien lana baloratzen duten eta lanarekin jarraitzeko animoak ematen dizkieten esaldiek eragin positiboa dute ikasleengan, horrekin batera, beste ikasleen jarrera positiboak imitatzerantz animatuz gero arlo sozialean integratuago egoteko aukera emango die. Jarrera desegokiei dagokienez, hobe da arretarik ez ematea eta ikaslea gauza positiboak eta egokiak egiten dituenean, horiek gehiagotan egitera animatzea. Zigorrek ez dute inolako eragin positiborik jarrerak irakasteko eta egoera limiteetan bakarrik erabiltzea gomendatzen da (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Jarreraren kontrola gelan lortzeko, psikologoarekin elkarlanean jardun behar da urrats batzuk jarraituz. Hasteko, moldatu nahi diren jarrerak aukeratuko dira; ondoren, aginduak emateko keinuak esleituko dira; bukatzeko, ikaslearen jarrerak egiaztatuko diren egoerak aukeratuko dira eta ikasgelan erabiliko diren sari eta zigoren zerrenda sortuko da. Irakasleak bere aldetik, ikasleen gehiegizko mugimendua kontrolatzeko zenbait estrategia ditu: lan

osagarriak ematea, mugitzeko aukera sari moduan ematea, erlaxatzeko estrategiak erabiltzeko eskatzea edo ikasgelatik ateratzea ahalbidetzea, baita, patiotik korrika egitea ere. Oldarkortasuna kontrolatzeko estrategia moduan, errutinak eratzen erakustea, itxaron izana indartzea edo bere erantzuna atzeratzen irakastea daude. Arreta falta duen umea estimulatzeko estrategiei dagokionez, irakasleak eta ikasleak ezagutzen dituzten keinuak erabiltzea, lanak hasteko laguntza ematea, lanen zailtasun maila pixkanaka handitzea eta lanak egiterako orduan abiadura handitzen ikastea, lanak egiteko denbora tartea txikituz (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Prozesu honetan zehar ikaslea taldean integratzea lortu behar da, umeari ikusarazi behar zaio modu zehatz batean lagunduko zaiola, ulertu beharrekoa hobeto ulertzeko eta lana pixkanaka egiten joateko. Beste ikasleei ume horren jarreraren inguruan hitz egin behar zaie, beraren jarreraren zergatia uler dezaten. Umea taldean integratuta sentitzeko, kolaboratzeko eginkizunak emango zaizkio, hala nola, materiala banatzea eta jasotzea edo gelaren enkarguak egitea, adibidez, klarionak eskatzera joatea (Santos, 2007).

Aurretik azaldutako estrategia guztiak aurrera eramanez ondoren, sortutako planaren eraginkortasuna analizatuko da, ondoren beharrezkoak diren moldaketak egiteko, horien artean: planean beharrezkoak diren jarrera berriak gehitzea eta desegokiak edo eraginkorrak ez direnak kentzea, irakaslearen entrenamendua ahalbidetzea eta entrenamenduaren aurreko eta ondorengo egoerak alderatzea baita, ikaslearen lanaren balorazioa egitea (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

B) Gurasoentzako entrenamendua

AGNH duten umeen gurasoentzako entrenamendua, epe luzez psikologo baten laguntzaz aurrera eramanez behar den prozesu bat da. Entrenamendua aurrera eramateko bi teknika mota daude, alde batetik, Barkley-ren programa, arreta arazoak, hiperaktibitate arazoak, ezezkotasun desafiartzilea eta portaera arazoak dituzten haurrentzat sortutakoa eta familia terapia sistemikoaren eta terapia kognitibo-konduktualaren printzipioak jarraitzen dituen eta bestetik, Forchand-en, Riesa-ren eta McMahon-en programa, umeen portaera aldatzeko printzipio eta teknikan oinarrituta dagoena (Haranburu, 2004).

Barkley-ren programaren urratsen arabera, gurasoek hasieran umeak dituen ezaugarriak eta jokaerak ulertu behar dituzte, ondoren, horiek hobetzen edo konpontzen laguntzeko. Horretarako zenbait urrats eman behar dira. Hasteko gurasoek AGNHren inguruko informazioa jasoko dute, horien artean: nahasmenduak dituen izen desberdinak, nahasmenduaren jatorria, sintomen eta jarreraren azalpenak, adinarekin jasotzen dituzten aldaketen azalpena eta

AGNHrekin lotuta ager daitezkeen bestelako nahasmenduen azalpena (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Jarraitzeko, gurasoek umearen jarrera arazoak izateko faktoreak eta gurasoek jarrera horiek ahalbidetu dezaketen faktoreen erregistro bat egingo dute. Ondoren, guraso eta seme-alaben arteko harremana hobetzeko jarrerak esleitzeko. Eman beharreko hurrengo urratsa, gurasoei haien seme-alabei arreta ipintzen eta jarrera batzuk alde batera uzten irakastea da. Hori posible izateko, beharrezkoa da teknika batzuk ikastea, hala nola: “arreta positiboa”, “zure seme-alaba harrapatzea ona izaten” edo “ez ikusiarena egitea”. Bestalde, aginduak modu eraginkorrean ematen ikasi behar dute, agindu sinpleak eta laburrak emanez. Hori, sari sistema batekin indartu daiteke umeak jarrera positiboak zeintzuk diren hobeto identifikatzeko (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Bukatzeko, “Denbora kanpora” izeneko teknikaren erabilpena irakatsiko zitzaien, umeak aginduak bete nahi ez dituenetarako. Honen helburu nagusia umea lasaitzea da, gertatutakoaren inguruan hausnartzeko denbora ematea, estimulurik gabeko leku batean eserita egonda, ondoren, agindutako betetzeko beste aukera bat emanez. Teknika hau etxetik kanpo ere erabili daiteke, baina urretik gomendagarria da umeari etxetik kanpo izan behar duen jarrera azaltzea, jarrera desegokiak ekiditeko eta batez ere umeak ezagutzen edo kontrolatzen ez duen leku horretan zer nolako jarrera izan behar duen jakiteko (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Aurreko prozesuaz gain gurasoek bestelako urratsak zeharkatu behar dituzte, askotan zailak direnak. Gurasoek onartu behar dute haien seme-alabak AGNH dutela eta horrekin batera gaitasun eta muga batzuk dituztela. Saiatu behar dira umeen autoestimua eta auto-konfiantza indartzen, egindako lorpenak eta esfortzuak aitortuz. Lasaitasun giro bat bermatzen saiatu eta tonu lasai bat erabili hitz egiteko, umeak hori imitatzen ikasiko dutelako. Umeak arazoak dituztenean, horiek ulertzen eta konpontzen laguntzea. Agendaren erabilpena sustatzea, egin beharrekoak antolatzen lagunduko diolako eta horrez gain tutorea eta gurasoen arteko harreman etengabea ahalbidetuko duelako (Angulo, Fernandez, Garcia, Ongallo, Prieto eta Rueda, 2008).

Forchand-en, Riesa-ren eta McMahon-en programan, gurasoek bederatzai saioetan zehar umeen portaera aldatzeko printzipio, teknika eta estrategiak ikasiko dituzte. Lehenengo saioan hiperaktibitate kontzeptua berrikusiko dute: zergatiak, diagnostia, izaera eta abar. Bigarren saioan guraso eta haurren arteko elkarreragina aztertuko dute. Hirugarrenean, gurasoek haurren portaeretan arreta jartzen ikasiko dute eta horretarako haurra jolasean ari den bitartean, gurasoek haren portaerari behatu beharko diote. Laugarren saioan, obedienezarako teknikak ikasiko dituzte: aginduak aukeratzen, aginduak ematean eta haurrak obeditzen badu,

saria emanez... Bosgarren saioan “Denbora kanpora” teknika ikasiko dute; eta seigarrenean hori bera beste portaera desberdinetan aurrera eramaten ikasiko dute. Zazpigarren saioan, toki publikoetan sariak eta “erantzun kostua” erabiltzen ikasiko dute. Zortzigarrenean, etorkizuneko portaera negatiboen kontrola sustatzeko teknikak eta bederatzigarrenean, errefortzu eta jarraipen saioa egingo da (Haranburu, Guerra, Torres, Zumalea eta GIEko orentazio mintegia, 2005).

C) Medikazioaren erabilpena

Medikazioaren erabilpenaren tratamendu ohikoen artean “estimulazaileak” daude. Hauek haiengan eragin positiboa sortzen dute, bulkadak kontrolatzeko aukera ematen dietelako eta, beraz, arreta mantentzeko aukera gehiago dute. Sendagai hauek hartzen dituzten %70 erantzun positibo izaten dute tratamenduari (Garrido, 2017). Medikazioa, ikertutako tratamenduen artean gehien erabili izan dena da, batez ere, 60 eta 70.hamarkadatik aurrera. Medikazio estimulazailearen tratamenduen erabilpena handitu zen eta horrekin batera, medikazio horren eraginkortasunaren ikerketak (Amador, Forns eta Gonzalez, 2010).

Medikazioa eskola adinean dauden umeen lehendabiziko tratamendua da. Erabiltzen den estimulazaile ohikoena metilfenidatoa (MTF) da. Sendagai honek tarte sinaptikoan dagoen dopamina kantitatea handitzen du, haien hiperaktibitatea murriztuz eta arreta mantentzeko aukera emanez. Baina, medikamentu honek eragozpen bat du, oso denbora laburrean organismotik desagertzen da, bertan 4 orduz gutxi gora behera mantenduz. Horrek esan nahi du, umeek eskola orduetan zehar bi edo hiru aldiz hartu behar dutela. Medikazioa, medikuak edo haur-psiikiatrak aginduko du eta gurasoek eman beharko diote. Umeari medikazioa eskola orduetan eman behar bazaio, eskolako erizainak edo gurasoek eman beharko diote, irakasleek ezin baitute medikaziorik eman. Hau kontuan hartuta beste modu bateko medikazio bat ikertu zen. Kasu honetan, askatasun osmotikoa izena hartzen du eta aukera ematen du dosia denbora tarte luzeagoz mantentzeko, egunean dosi bakar bat hartuta (Flores,2014).

Badago atomoxetina (ATX) izeneko beste medikamentu bat, honek neuroadrenalina eta dopamina maila handitzen ditu aurreko azalean. MTF a bezala, medikamentu honek umeen hiperaktibitate maila txikitzen du eta arreta mantentzeko aukera gehiago ematen die. Medikamentu hau organismotik oso modu motelean kanporatzen da, beraz aukera ematen du egunean dosi bakar batekin bilatzen diren erantzunak lortzeko (Buisán, Carmona, García, Noguera, eta Rigau, 2014).

1.8. Detekzio goiztiarraren garrantzia

Emilio Garridok (2017) bere azkeneko liburuan azaltzen duen moduan, gero eta lehenago diagnostikatu, orduan eta hobeto. Gurasoak, irakasleak eta pediatriak dira umeengandik hurbilen daudenak, umearengan AGNHren sintomak nabaritzen hasten diren momentutik, aproposena da, espezialistengana eramatea. Lehen baino lehen diagnostikoa lortzea delako garrantzitsuen, modu horretan umea laguntzeko aukera gehiago egongo direlako. Diagnostikoa lortuz gero, familiaren estatusuna desagertuz joango da eta umeak euskarri klinikoa, jarrerazkoa eta psiko- hezigarria izango ditu, garatzen lagunduko diotenak.

Osasun-politikak, medikuak eta prebentzio proiektuetan lan egiten duten langileek aditzera ematen dute nahasmenduaren detekzio goiztiarraren garrantzia, arazoaren iraupena murriztu dezakeelako eta kaltetutakoen pronostikoa hobetzeko aukera ematen duelako (Calderon, et al., 2014)

Ume askok atsedean emozionala hartzen dute, medikuak zer gertatzen zaien esaten dienean eta izen bat jartzen diotenean ulertzen ez zuten horri. Txarra, urduria, jasanezin eta antzeko adjektiboak hiperaktibo adjektiboarekin aldatzen direnean umea eta familia laguntzen du. Guraso askok umeak oraindik oso txikiak direnean laguntza eske joaten dira medikuarenera, haien umeari gertatzen zaiona ulertzen ez dutelako. Kasu horietan guraso horiei entzun behar zaie eta ahal den neurrian laguntza eskaini behar zaie. DSM-IVak dio, AGNH ezin dela diagnostikatu 7 urte bete arte, baina nahasmendu hau modu arinean, moderatuan edo larrian agertu daiteke eta horrek aukera ematen du txikitatik sintomak agertzeko (Garrido, 2017).

Nahasmendu honek umearen eboluzio unearen arabera sintoma desberdinak ditu. 0 eta 2 urte bitartean, lo egiteko arazoak dituzte (askotan esnatzen dira, lo egiteko tarte txikiak egiten dituzte eta maiz, ikaratuta esnatzen dira); 2 eta 3 urte bitartean, adierazpen lengoaiaren atzerapena, gehiegizko mugimendua, ez dute arriskuaren kontzientziarik eta istripuak izateko aukera gehiago dituzte; 4 eta 5 urte bitartean, gizarte-egokitzapenaren arazoak, esan txarrekoak dira eta arauak jarraitzeko arazoak dituzte; 6 urtetik aurrera, oldarkortasuna, zabartasuna, eskola-porrota eta jarrera antisozialak izaten dituzte (Velez, 2012).

AGNH heldutasunean mantentzen da, beraz, oso garrantzitsua da horren detekzio goiztiarra. Ikasle hauek bi urteko atzerapena dute ikaskuntza gaitasun batzuetan, hala nola: irakurketan, idatzizko adierazpenean, ortografian, kalkuluan eta arazo matematikoen ebazpenetan. Ikasle hauen diagnostikoa hobetzera doa, interbentzio egoki bat ematen bada eta hobe interbentzio goiztiarra izanez gero. Interbentzio hau pertsonaren arabera desberdina izango

da, horregatik garrantzitsua da inplikaturako profesionalen, familiaren eta ikaslearen arteko elkarlana (Monge, 2006).

AGNH duten umeek heziketa prozesuaren barne egoteko eta trebakuntza eta errehabilitazio prozesuetarako sarbidea izateko aukera izan behar dute, haien potentziala hobetzeko eta gizartean barneratzeko, herritar parte-hartzaile eta produktiboak izan daitezten. Egoera hau nahasmenduaren detekzio goiztiarrarekin eta arreta integralarekin bakarrik lor daiteke. Era berean, detekzio goiztiarra, familiaren prestakuntza eta inguruak sortzen dituen zailtasunak eragin zuzena dute umearen heziketa prozesuetan. Horregatik, detekzio goiztiarra, eta familiaren, ikastetxearen eta osasun zerbitzuen arteko elkarlana AGNH duen umearen egoera aurrera ateratzeko bide bakarra izan daiteke (Velez, 2012).

Badaude AGNH detektatzeko zailtasun asko; horiek bai guraso, bai irakasle eta baita bestelako profesionalengan eragina dute. Horien adibide, familiarentzako informazio urria, irakasle formakuntza eskasa, gelan, etxean eta etxetik kanpo erabilgarriak diren estrategien ezagupen txikia edo profesionalen gabezia daude (Rabadán eta Gimenez, 2012).

AGNH detektatzeko zailtasun nagusiak hauek dira: gurasoek informazio eskasa izatea, etorkizuneko irakasleek gaiaren prestakuntzarik ez izatea, formakuntza programen eskasia, psikologo, pedagogo eta gizarte langileen hornidura txikia ikastetxetan eta identifikatzeko ezarritako protokoloen falta. Bestalde, prebentzioaren aldetik ere zailtasunak daude: irakasleen prestakuntza eskasa AGNH duen umea gelan laguntzeko, ikastetxeetan pedagogia terapeutikoko irakasleen eskasia baita, metodo eta teknika espezifikoaren erabileraren eskasia eta tratamendu psiko-hezitzaileei ematen zaien balorazio eta garrantzi txikia (Santos, 2007).

Detekzioan laguntzeko, ikastetxe batzuek behaketa taulak sortu dituzte lau aukeretako balorazio eskalarekin. Bertan, AGNHaren azpimultzo bakoitzaren ezaugarriak agertzen dira eta horren arabera irakasleak informazioa jasotzen du. Hau aurrera eramateko, irakasleak aurretik gaiaren ezaugarrien prestakuntza bat jaso behar du. Irakasleak egindako prozesu hau, ikasgelan egindako detekzio eta identifikazio goiztiar moduan erabiliko da, ondoren, orientazio eta osasun zerbitzuek berretsi egingo dutenak (Rabadán eta Gimenez, 2012).

Irakasleen parera ez da soilik AGNH duten ikasleek laguntzea, gurasoak ere lagundu behar dituzte. Abiagunetzat, irakaslea enpatikoa, malgua, argia eta sendoa izan behar du, ikasleek seguru sentitzeko eta modu horretan autoirudi on bat lortzeko. Barietate handiko hezkuntza estrategiak erabili behar dira, umeen behar, ezaugarri, mota eta erritmoei egokitzeko. (Monge, 2006)

Irakasleek ikuspegi ezin hobe dute AGNH detektatzeko, haiek ikasleekin denbora asko ematen dutelako. Baina hori ez da nahikoa, irakasleek prestatuta egon behar dira eta gaiaren inguruko prestakuntzak jaso behar dituzte. Horrez gain, irakasleen, pedagogoen eta osasun zerbitzuen arteko elkarlana beharrezkoa da (Rodríguez, Navas, González, Fominaya eta Duelo, 2006).

Detekzioaren prozesuan zehar, AGNH duten umeen pertsonaren narriadura saihestu behar da. Beraz, beharrezkoa da ingurunearen eskakizunak umearen gaitasun eta ezaugarrietara moldatzea detektatzeko estrategiak erabili aurretik. Koska ez da prozesuan arazoak ez agertzea, baizik eta umearen garapeneren hobekuntzan laguntzea (Troyano, 2011).

2. IKERKETA

A. METODOA

HELBURUAK

- Euskal Herriko ikastetxe desberdinetako irakasleen AGNHren errealitatearen azterketa bat egitea, itaunketa baten bitartez, irakasle horiek gaiarekiko dituzten beharrak eta gabeziak ezagutzeko.
- Irakasleentzako baliagarria den material bat sortzea, AGNH duten umeei dituzten ezaugarriak identifikatzen laguntzeko, haien detekzio goiztiarra errazteko eta inguru akademikoan lan egiteko baliabideak ematea, ikasle horien ikaskuntza errazteko eta hobetzeko.

B. PARTE HARTZAILEAK ETA NEURTZEKO TRESNAK

Itaunketan Euskal Herriko Ikastetxe desberdinetako, Lehen Hezkuntzako 37 irakasleek parte hartu dute. Horien artean, erdiak baino gehiago, bat eta bost urte bitarteko esperientzia dute ikastetxeetan lan egiten. Parte hartu duten beste irakasleek, esperientzia handiago dute, sei eta hogeit hamar urte bitarteko esperientzia izanda. Irakasle guztien artean, bakarrik ehuneko berrogei irakasleek AGNH duen umeren bat izan dute geletan.

Inkesta 12 galdera mistoz osatuta dago, non batzuetan irakasleek hautatzeko erantzunak dituzten eta beste batzuetan, haiek sortutako erantzunak emateko aukera duten (6.1 eranskina).

Gaia, irakasleek Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Nahasmenduaren inguruan duten informazioaren, prestakuntzaren eta beharren ingurukoa da. Informazioa eskuratzeko tresna, eraketa propioa itaunketa da.

C. PROZEDURA

Aplikazioari dagokionez, online egin da, Google inprimaki baten bitartez. Hori posta elektronikoz Euskal Herriko ikastetxe desberdinetara bidali da, irakasleek erantzuteko. Formularioa betetzeko irakasleek hiru hilabeteko epea izan dute.

Behin irakasleen erantzunak izanda, itaunketaren datuak Excel moduan deskargatu dira. Formatu honi esker galdera bakoitzaren erantzun guztiak batera agertzen dira eta erraztasuna ematen du datuak interpretatzeko.

D. ANALISI ESTATISTIKOAK

Lortutako datuen analisia egiteko, grafikoak eta histogramak erabili dira. Excel programarekin grafikoak sortu dira, modu horretan datuak modu antolatu batean ikusteko eta bertatik galderen emaitzen ondorioak ateratzeko.


EMAITZAK

Jasotako emaitzen interpretazioa egiteko, itaunketaren galderak erabiliko dira oinarri moduan eta lortutako emaitzak grafikoen bitartez irudikatuko dira, datuak argi ikusteko. Jarraian datu horien interpretazioa egingo da.

Itaunketaren bitartez, hiru multzo desberdinetako informazioa jaso da. Hasteko, irakasleen gelen eta esperientzien inguruko galderak agertzen dira, ondoren, irakasleek AGNHren inguruan duten jakintzaren inguruko galderak eta bukatzeko, irakasle horiek gaiarekiko duten prestakuntzaren eta sumatzen dituzten gabezien inguruko galderak agertzen dira.

Irakasleek haien geletan duten egoeraren inguruko galderak


Zenbat urte daramazu ikastetxeetan lan egiten?



1. Grafikoa. Lan esperientzia.

Itaunketaren datuen arabera, parte hartu duten irakasleen %37ak urte bat baino gutxiago daramate ikastetxe batean lan egiten. % 24ak bat eta bost urte bitarteko esperientzia daukate eta %39ak sei eta hogeitun urte bitarteko ibilbidea dute ikastetxeetan lan egiten.


Zure gelan AGNH duen umeren bat dago?



2. Grafikoa. Geletan AGNH duten umeak

Ikertutako irakasleen gela gehienetan, konkretuki gela %61ean, AGNH duen umeren bat dago. Bestelako %39an ez dago AGNH duen edo diagnostikatuta dagoen umerik. Gelan AGNH duen ume bat duten irakasleek jakin beharko lukete nahasmendu hau zer den eta ume horiekin zer nolako estrategiak erabili behar dituzten.


AGNH duten umeen egoerari garrantzia ematen diozu?



3. Grafikoa. AGNH duten umeen egoerari ematen zaion garrantzia

Irakasleen ehuneko oso altuak, %81k kasu, AGNH duten egoerari garrantzia handia ematen diote eta % 19ak erdibideko garrantzia ematen dio. Itaunketan ez da irakaslerik agertu AGNH duten umeen egoerari garrantzia gutxi edo oso gutxi eman diotenik.

Uste duzu prestatuta zaudela AGNH gelan detektatzeko? Erantzuna ezetz bada, zer beharko zenuke?




4. Grafikoa. Irakasleek AGNH detektatzeko prestakuntza.

Itaundutako irakasleen artean, erdiak baino gehiago dio prest ikusten duela bere burua gela batean AGNH duen ume bat detektatzeko. Beste aldetik % 46k ez dagoela prestatuta dio eta umeen ezaugarri, sintomen eta lan egiteko moduen inguruko formakuntza faltan botatzen dutela diote. Beste batzuek, gaian aditua den pertsona batengatik formakuntzak jasotzea eskertuko lukete eta beste batzuek aldiz, esperientzia falta dutela diote.

Haien burua AGNH duen ume bat detektatzeko prestatuta ikusten ez duten irakasleek urte bateko esperientzia baino gutxiago dute ikastetxeetan lan egiten eta horrez gain, geletan ez dute nahasmendua duen umerik izan edo gutxienez diagnostikorik duena.

Irakasleek AGNHren inguruan duten jakintzaren inguruko galderak

**Zure ustez, ezaugarri hauetatik zeintzuk nabarmentzen dira AGNH duten umeengan?
Ezaugarriren bat gehituko zenuke?**




5. Grafikoa. AGNH duten umeen ezaugarriak irakasleen ustez.

Galdera honetan irakasleek AGNH duten umeen ezaugarriak identifikatu behar zituzten, haien ustetan AGNH zuten umeak hobeto deskribatzen zituztenak markatuz, eta aukera zuten ere, bestelako ezaugarriak txertatzeko. Itaundutako 37 irakasleetatik, 31k arreta mantentzeko arazoak dituztela diote eta 28k asko mugitzen direla.

20 eta 13 pertsona bitartean ume hauek lanak bukatu gabe uzten dituztela, edozein zaratak distraitzen dituztela, gauzak pentsatu gabe egiten dituztela, txandak itxarotea kostatzen zaiela, erantzunak pentsatu gabe ematen dituztela eta gauzak planifikatzen ez dituztela diote. Pertsona gutxien markatutako ezaugarriak, objektuak galtzen dituztela, ez dakitela jolas lasaietara jolasten, asko hitz egiten dutela eta lagunak egiteko zailtasunak dituztela dira.

Bestelako erantzunen artean, pertsona batek umeak batzuetan lasaiegiak ematen dutela dio eta beste batek klaseak askotan moztzen dituztela dio.

Nola deskribatuko zenuke AGNH duen ume bat?



6. Grafikoa. Irakasleek AGNH duten umei buruzko deskribapena

Irakasleek egindako deskribapenen artean, 14 pertsonak diote ikasle hauek oso mugituak direla, 13 pertsonak, burua kontrolatzeko zailtasunak dituztela eta 10 pertsonak, arreta mantentzeko zailtasunak dituztela. Hiru pertsonak ume hauek beste umeak molestatzen dituztela diote eta pertsona batek, autoestimu baxua dutela. Orobat, 4 pertsona, aldi berean gauza asko pentsatzeko gaitasuna dutela eta ume irudimentsuak direla diote eta pertsona batek dio ume arruntak direla.

Grafiko hau egiteko, ikerketa kualitatiboa eraman da aurrera. Hori kontuan hartuta, irakasleek emandako erantzun guztiak irakurri eta klasifikatu egin dira. Sailkapen horretatik grafikoa eratu da.

Nola lan egiten duzu AGNH duen ikasle bat gelan duzunean?




7. Grafikoa. AGNH duten umeekin lan egiteko modua.

Ikertutako irakasleen artean 9k ez dakite ikasle hauekin nola lan egin eta beste 9 irakasle diote, mugimendua eskatzen duten jarduerak egiteko aukera eman behar zaiela, rolak

emanez. Badaude bestelako erantzunak, 8 pertsonak diote ikasle hauei egokitzapenak egin behar zaizkiela, bai jardueretan baita azterketetan ere, beti ere PTaren laguntzarekin; 5 pertsonek diote, ikaslearen kokapenean moldaketak egin behar direla eta beste 5 pertsonek irakaslearen eta ikaslearen arteko kontaktua mantendu behar dela.

Grafiko hau lortzeko, ikerketa kualitatiboa egin da. Irakasleek haien erantzun propioak emateko aukera izan dute. Emandako erantzun guztiak irakurri eta klasifikatu egin dira ondoren sailkapen horretatik grafikoa egiteko.

Ume batek AGNH duen susmoa duzunean zer egiten duzu?




8. Grafikoa. Irakasle batek zer egiten du, ume batek AGNH duen susmoa duenean.

Itaundutako irakasleen artean, %84k ume batek AGNH duen susmoa duenean, ikastetxeko orientatzailearekin eta psikologoarekin hitz egiten du, beraiek egoera azter dezaten eta %2k gurasoekin hitz egitea erabakitzen du. Halaber, % 14ak ez dio egoerari kasurik egiten.

Irakaslearen gaiarekiko prestakuntzaren eta beharren inguruko galderak


AGNH detektatzeko baliabiderik ezagutzen al duzu? Baiezko izatekotan, zein baliabide ezagutzen duzu?



9. Grafikoa. AGNH detektatzeko baliabideen ezagupena.

Irakasleen %63k ez dituzte AGNH detektatzeko baliabiderik ezagutzen eta beste %37 baietz diote. Baiezkoen artean eskuratutako baliabideen artean testak, itemak dituzten taula batzuk eta ikastetxeko plan eta programak ezagutzen dituztela diote.


AGNH duten umeekin lan egiteko tresnarik ezagutzen al duzu? Baiezko izatekotan, zein tresna ezagutzen duzu?



10. Grafikoa. AGNH duten umeekin lan egiteko tresnen ezagupena.

Itaunketan parte hartu duten irakasleen %68k ez du ezagutzen AGNH duten umeekin lan egiteko tresnarik. Bestelako %32k, baietz diote eta tresnen artean, kartelen erabilpena, dinamika aktiboak, arreta erakartzeko teknikak, egokitzapen pertsonalak, ahozko jarduerak, memoria lantzeko jarduerak, material bisualak, fitxak eta denbora kanpora teknika ezagutzen dituzte.


Noizbait AGNHren inguruko formakuntzaren bat jaso izan duzu (detekzioan, gelako interbentsioan, etab.)?



11. Grafikoa. Irakasleek jasotako formakuntza.

Elkarrizketatuen artean, %50ak ez du inolako formakuntzarik jaso, ez AGNHren detekzioan, ezta gelako interbentsioan ere. %11k gelako interbentsioan jaso du prestakuntza, %10ak detekzioan eta beste %10ak unibertsitateko ikasgai batean ikasitakoa besterik ez dute jaso. Bai detekzioan eta bai gelako interbentsioan formakuntza jaso duten pertsonak %19a izan dira.

Irakasle moduan, zer baliabide gustatuko litzaizuke izatea AGNH duten umeen ezaugarriak detektatzeko eta ondoren haiekin lan egiteko?



12. Grafikoa. Irakasleen beharren araberako materiala

Grafikoan ikus daiteke, itaundutako %55ak, AGNH duten umeen ezaugarriak, beraiekin hitz egiteko modua, eta ume horiekin lan egiteko modua azaltzen duen gida bat izatea gustatuko

litzaiekeela. %21ak umeekin lan egiteko modua azaltzen duen gida bat nahi dute, %13ak ikasle hauen ezaugarriak azaltzen dituen gida bat eta azkenik %11ak ume horiekin hitz egiteko modua azaltzen duen gida bat.

EMAITZEN ONDORIOAK

Euskal Herrikoa irakasleek AGNH duten umeen detekzio goiztiarraren eta gaiaren inguruan duten prestakuntza eta beharren inguruan egindako itaunketaren datuen interpretazioa egin ostean, bertatik ateratako ondorioak azalduko dira.

Hasteko, irakasleen gelen egoeraren inguruko datuei dagokionez, parte hartu duten gehienek urte bat baino gutxiagoko esperientzia dute ikastetxe bateko gela batean lan egiten. Itaundutako ehuneko laurogeiak garrantzia handia ematen dio AGNH duen umeen egoerari. %61ak gelan AGNH duen umeren bat daukate eta erantzun guztien artean erdiak baino apur bat gehiago detektatzeko prest dagoela dio. Besteek, detektatzeko bere burua gai ikusten ez dutenak, prestakuntza eta esperientzia faltan dutela diote.

Jarraitzeko, irakasleek AGNHren inguruan aurkeztutako ezaugarrien artean, ume hauek asko mugitzen direla eta arreta mantentzeko arazoak dituztela nabarmendu dute, nahasmenduaren izenarekin harreman handiena dituzten ezaugarriak esaterako. Ikasleen deskribapenetan, ume mugituak direla, haien burua kontrolatzeko eta arreta mantentzeko arazoak dituztela diote, halaber, ume hauek aldi berean gauza asko pentsatzeko gaitasuna dutela eta irudimen handikoak direla diote.

Ume haiekin lan egiteko moduaren inguruan, bederatzi irakasleek ez dakite zer egin eta beste bederatzik, mugimendua eskatzen duten jarduerak egitea proposatzen dute. Gutxi dira betenetan ume hauei egokituak diren estrategiak proposatzen dituztenak, denbora kanpora kasu. Halaber, irakasle gehienak argi dute ikasle batengan AGNH ezaugarriak identifikatuz gero, zer nolako prozesua jarraitu behar duten. % 14ak aldiz, nahiz eta ezaugarriak ikusi ez dio egoerari kasurik egiten.

Bukatzeko, irakasle gehienek nahasmendu hau izan dezaketen umeak detektatzeko baliabideak ezagutzen dituzte, horien artean testak, itemak dituzten fitxak eta ikastetxeetako programak. Lan egiteko tresnak ezagutzen dituzten irakasleak oso gutxi dira eta horri lotuta irakasle erdiak ez duela inolako formakuntzarik jaso doa. Azkeneko galderan, irakasleei zer nolako materiala beharko luketen galdetzen zaie eta erdiak baino gehiago (%55) ikasleen ezaugarriak, beraiekin hitz egiteko modua, eta ume horiekin lan egiteko modua azaltzen duen gida bat izatea gustatuko litzaiekeela diote.

3. IRAKASLEENTZAKO LAGUNTZA ESKULIBURUA

A. HELBURUAK

Orokorra

- Irakasleei AGNH duten umeak detektatzen laguntza ematea eta detekzio prozesu horretan ume horiekin lan egiteko estrategiak ematea, irakasleen lana hobetzeko eta errazteko.

Espezifikoak

- AGNHk duen garrantzia argitzea, definizioa eta ezaugarri garrantzitsuenak azalduz, manualaren alderdi garrantzitsuenak adierazteko.
- AGNHren detekzio programan irakasleak duen garrantzia azaltzea, jarraitu beharreko prozesua nolakoa den azalduz, ikasleen ikaskuntza prozesua hobetzeko.
- Umeen ikaskuntza prozesuan laguntzea, AGNH duten umeen ezaugarriak eskola garaian identifikatuz, egokituak diren estrategiak sortzeko.
- Ikasleek ikaskuntza prozesuan izan dezaketen arazo zehatzak identifikatzea, iturri desberdinak erabiliz, prozesuan laguntzeko estrategiak emateko.
- Gurasoentzako informazio iturri izatea, informazio zehatz bat emanez, umeen ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

B. HARTZAILEAK

Euskaraz egindako irakasleentzako laguntza eskuliburu hau, Lehen Hezkuntzako ikasgeletan AGNH duten umeak dituzten edo nahasmendua dutela susmoa duten irakasleentzat zuzenduta dago.

Eskuliburuaren azken atalean gurasoentzako aholkuak agertzen dira, eskola garaian dauden ume hauek ere etxetik laguntza jasotzeko aukera izan dezaten.

C. ESKULIBURUAREN EGITURA

Atal honetan irakasleentzako laguntza eskuliburuaren egitura azalduko da. Eskuliburu osoa 6.2 eranskinean dago.



Sarrera

Aurkibidea

Zer da AGNH?

- Ezaugarri eta portaera nagusiak
- Aniztasunaren trataera
- Ume mugituen eta AGNH duten umeen arteko desberdintasun nagusiak

AGNHren detekzioa

- Lehen hezkuntzako AGNH duten ikasleen ezaugarriak
- Irakaslearen garrantzia detekzio prozesuan
- Irakasleek detekzio prozesuan jarraitu beharreko pausuak

Irakaslearen hezkuntza arreta

- ALDERDI OROKORRAK**
 - Ikaslearen kokapena
 - Gelaren egiturakera
 - Jarrera kontrolatzeko estrategiak
 - Klasea emateko modua
 - Ebaluaziorako estrategiak
- ALDERDI ZEHATZAK**
 - Irakurketa
 - Idazketa
 - Matematika
 - Motrizitate gaitasuna
 - Autoestimua
 - Gaitasun sozialak
 - Autokontrola
 - Motibazioa eta egoera emozionala
 - Ikasleen antolaketa hobetzeko estrategiak

Gurasoentzako aholkuak/ estrategiak

- Zer gertatzen zaie AGNH duten umeei?
- Zer egin dezaket guraso moduan?
- Euskal Herriko AGNH elkarteak

Bibliografia

4. ONDORIOAK

AGNHren errebisio bibliografikoa, Euskal Herriko irakasleek nahasmenduaren inguruan duten ezagutzaren inguruko ikerketa egin ostean eta irakasleen beharrei irtenbide bat eman eta gero, atal honetan, egindako lanaren ondorioak agertuko dira.

Hasteko, Gradu Amaierako Lan honi esleitutako helburuak bete diren ikusiko da. Lehengo helburua, Euskal Herriko ikastetxe desberdinetako errealitatea ezagutzea zen, egindako ikerketari esker irakasleek AGNHren inguruan duten ezagutza ikusi da eta horri esker, irakasleen beharrak eta gabeziak agertu dira. Bigarren helburuari dagokionez eta ikusita irakasleek nahasmendua detektatzeko eta inguru akademikoan ume horiekin lan egiteko baliabiderik ez dutela ezagutzen, konkretuki, itaundutako irakasleen %68k, irakasleentzako laguntza eskuliburu bat sortu da.

Egindako itaunketaren emaitzen bitartez Hezkuntza Sistemak duen hutsune bat agertu da, esan bezala, itaundutako irakasleen erdia baino gehiagok ez du ezagutzen AGNH detektatzeko eta ume horiek hezkuntza arloan laguntzeko baliabiderik. Egun, eskola adineko umeen %3 eta %6en artean nahasmendu hau dute; horrek esan nahi du, ikasgela bakoitzean AGNH duen ume bat egoteko aukera dagoela. Hori jakinda eta itaunketaren emaitzak ezagututa, Hezkuntza Sistemak hutsune bat duela ondorioztatu dezakegu.

Lan honi esker irakasleek AGNHri buruzko informazioa jaso dezakete, horrez gain, ikerketaren bitartez zer nolako prestakuntza duten eta zer nolako beharrak dituzten ikus dezakete eta, gainera, dagoen arazoari emandako irtenbidea eskuragarri izango dute, Berritzagunearen ebaluazio psikopedagogikoa ailegatzan den bitartean. Sortutako baliabidea Lehen Hezkuntzako irakasleentzat zuzenduta dago, bertan AGNH duten ikasleak detektatzeko eta dituzten hezkuntza arazoei irtenbidea emateko estrategiak agertzen dira, hau guztia, euskaraz egindako eskuliburu batean.

Baina lan honek limitazioak ditu, sortutako eskuliburua ezin izan da ikastetxeetan eraman irakasleek erabiltzeko eta duen erabilgarritasuna benetan ikusteko. Hori horrela izanda eta etorkizun hurbilera begira, harremanetan jarriko naiz Bizkaiko AGNH erakundearekin, AHIDA izeneko, haien web orrialdean egindako lana eskegitzeko eta bertatik ezagutzera emateko. Horrez gain irakasle izango naizen heinean, egindako eskuliburua lan egingo dudan ikastetxeetan ezagutzera emango nuke, lankideek sortutako eskuliburuaz baliatzeko eta Hezkuntza Sistemak duen hutsune hau pixkanaka desagerrarazteko.

5. ERREFERENTZIAK

- ADAHIgi, AHIDA, ANADAHI. (2006). *Guía de actuación con alumnado TDA-H (Déficit de Atención con Hiperactividad)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Amador, J.A. eta Forns, M. (2001). Características del Trastorno por Déficit de Atención con Hiperactividad. *Anuario de Psicología*, 32(4), 5-21.
- Amador, J.A., Forns, M. eta González, M. (2010). *Transtorno por Déficit de Atención con Hiperactividad (TDAH)*. Madril, Espainia: Síntesis editoriala.
- American Psychiatric Association, APA. (2002). *DSM-IV-TR. Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales. Texto revisado*. Bartzelona: Masson
- Angulo, M.C., Fernandez, C., Garcia, F.J., Ongallo, C.M., Prieto, I. eta Rueda, S. (2008). *Manual de atención al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de trastornos graves de conducta*. Andaluziako Batzarra: Hezkuntza Kontseilua.
- Berritzeguneak. (2012). *Eskola Inklusiboaren esparruen aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016*. Gasteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Berritzeguneak. (2019). *Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana 2019-2022*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila.
- Bonet, T. (2015). Recomendaciones para padres de niños con TDAH. TDAH y Tú. Honako web orrialdetik berreskuratua: <http://www.tdahytu.es/recomendaciones-para-padres-de-ninos-con-tdah/>
- Buisán, N., Carmona, C., García, K., Noguer, S. eta Rigau, E. (2014). *El niño incomprendido*. Bartzelona: Amat editoriala.
- CADAH (2012). Ideas clave en la respuesta educativa para el alumnado con TDA-H. Honako web orrialdetik berreskuratua: https://www.fundacioncadah.org/web/doc/index.html?id_doc=145
- CADAH fundazioa. (2012). *TDAH en el aula. "Trastorno por Déficit de Atención e Hiperactividad"*. Guía para docentes. Santander.

- CADAH fundazioa. (2012). TDAH: Adaptaciones en Educación Física para niños con NEE. Honako web orrialdetik berreskuratua: <https://www.fundacioncadah.org/web/articulo/tdah-adaptaciones-en-educacion-fisica-para-ninos-nee.html>
- Calderon, A.L., Ruiz, R., Lenz, F.A., Sosa, H., Lopez, N., Melo, G. eta Waliszewski, S. M. (2014). *TDAH y conducta perturbadora. La importancia de la detección temprana*. Boca del Rio, Mexiko: Verakruzeko unibertsitatea.
- EUSARGHI. (2015). Zer da AGN-H? Honako web orrialdetik eskuratuta: <https://www.eusarghi.org/eu/2015-06-20-17-10-41/zer-da-agn-h>
- Flores, M. J. (2014). *Detección temprana de los trastornos por déficit de atención e hiperactividad en los niños de seis a once años de edad en la Escuela Superior Arzobispo Serrano de la ciudad de Cuenca*. Quito: Ekuadorreko unibertsitate katolikoa.
- Garrido, E. (2017). *500 preguntas y respuestas sobre la hiperactividad (TDAH)*. Espainia: Eunete editoriala.
- Gobierno de Navarra (2012). Guía para el profesorado. Entender y atender al alumnado con déficit de atención e hiperactividad (TDAH) en las aulas. Nafarroa: Hezkuntza Saila
- Guillén, P. (2014). No cualquier niño movido o conteston es TDAH. Conocimiento compartido. Federación Española de Asociaciones de Ayuda al Déficit de Atención e Hiperactividad. Honako web orrialdetik berreskuratua: <https://feadah.org/blog/no-cualquier-nino-movido-o-conteston-es-tdah/>
- Haranburu, M., Guerra, J., Torres, E., Zumalae, T. eta GIEko orientazio mintegia. (2005). Arreta gabezia hiperaktibitatearekin nahastea. *Hik hasi*, 15, 57-58.
- HEZIBERRI 2020. (2014). *Marco del modelo educativo pedagógico*. Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza. Honako web orrialdetik berreskuratuta: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_heziberr/adjuntos/Heziberri_2020_c.pdf
- Junta de Castilla y Leon. (2016). *Protocolo de coordinacion del trastorno por Déficit de Atención e Hiperactividad. 2. edizioa*. Hezkuntza Aholkularitza.
- Mena, B., Nicolau, r., Solat, L., Tort, P. eta Romero, B. (2006). Guía Práctica para educadores. El alumno con TDAH. 2. Edizioa. Bartzelona: Mayo edizioa.

- Monge, M. (2006). *Manejo en el aula del Trastorno de déficit atencional e hiperactividad*. Costa Rica: Costa Ricako Unibertsitatea.
- Quicios, B. (2016). Diferencias entre niños hiperactivos y movidos. Cómo saber si mi hijo es hiperactivo o simplemente es inquieto. Guia Infantil. Honako web orrialdetik berreskuratua:<https://www.guiainfantil.com/articulos/salud/hiperactividad/diferencias-entre-ninos-hiperactivos-y-movidos/>
- Rabadán, J.A. eta Gimenez, A.M. (2012). Detección e intervención en el aula de los trastornos de conducta. *Murtziako unibertsitateko Hezkuntza fakultatea*. 15(2), 185-212.
- TDAH y tú. (2015). Detectar el TDAH en el entorno escolar. Reconocer el TDAH, el primer paso hacia el diagnóstico. Honako web orrialdetik bereskuratua: <http://www.tdahytu.es/detectar-el-tdah-en-el-entorno-escolar/>
- TDAH y tú. (2015). Detectar el TDAH en el entorno escolar. Reconocer el TDAH, el primer paso hacia el diagnóstico. Honako web orrialdetik bereskuratua: <http://www.tdahytu.es/detectar-el-tdah-en-el-entorno-escolar/>
- Troyano, I. (2011). Medidas educativas dirigidas a niños y niñas con TDAH en educación primaria. *Revista Enfoques Educativas*, 73, 108-119.
- Velez, C eta Vidarte, J.A. (2012). Trastorno por deficit de atencion e hiperactividad (TDAH), una problematica a abordar en la politica publica de primera infancia en Colombia. *Manizaleseko unibertsitatea*. 14, 2,113-128.

6. ERANSKINAK

6.1. ITAUNKETA

AGNH LEHEN HEZKUNTZAN

Azken hamarkadan Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Nahasmenduak (AGNH) garrantzia handia hartu du hezkuntza arloan. Nahasmendu honek jatorri neurobiologikoa du eta nahiz eta orain dela urte batzuk pentsatu haurren nahasmendua zela eta helduaroan desagertzen zela, orain ikerketek nahasmendu kronikoa dela eta bizitza osoan zehar irauten duela diote.

Inkesta honen bitartez, irakasleek AGNHren inguruan duten informazioa jakitea eta detektatzeko eta gelan lantzeko baliabiderik ezagutzen dituzten jakitea gustatuko litzaidake. Horrez gain, Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko nahasmendua dituzten umeak detektatzeko eta haiekin lan egiteko zein motatako baliabideak izatea gustatuko zitzaizkien jakitea gustatuko litzaidake.

Aldez aurretik, eskerrak eman nahi dizkizuet inkesta honetan parte hartzen duzuen guztioi, zuen laguntzarik gabe horrelako lanak egitea ezinezkoa izango litzatekeelako.

* *Zenbat urte daramazu hezkuntzan lan egiten?*

- Bat baino gutxiago
- 1 eta 5 urte bitartean
- 6 eta 10 urte bitartea
- 10 eta 20 urte bitartean
- 20 urte baino gehiago

* *Zure gelan AGNH duen umeren bat dago?*

- Bai
- Ez

* *Zure ustez, ezaugarri hauetatik zeintzuk nabarmentzen dira AGNH duten umeengan? Ezaugarriren bat gehituko zenuke?*

- Objektuak galtzen dituzte
- Lagunak egiteko aukera asko dituzte
- Lanak bukatu gabe uzten dituzte
- Edozein zaratak distraitzen dituzte

- Arreta mantentzeko arazoak dituzte
 - Gauzak pentsatu gabe egiten dituzte
 - Txandak itxarotea kostatzen zaie
 - Erantzunak pentsatu gabe ematen dituzte
 - Ez dituzte egin beharrekoak planifikatzen
 - Asko mugitzen dira
 - Ez dakite jolas lasaietara jolasten
 - Asko hitz egiten dute
 - Beste bat
- * *Nola deskribatuko zenuke AGNH duen ume bat?*
(.....)
- * *AGNH duten umeen egoerari garrantzia ematen diozu?*
- Garrantzia handia
 - Erdibideko garrantzia
 - Garrantzia gutxi
 - Oso garrantzia gutxi
- * *Nola lan egiten duz AGNH duen ikasle bat gelan duzunean?*
(.....)
- * *Uste duzu prestatuta zaudela AGNH gelan detektatzeko? Erantzuna ezetz bada, zer beharko zenuke?*
- Bai
 - Ez
 - (.....)
- * *Ume batek TDAH duen susmoa duzunean zer egiten duzu?*
- Ikastetxeko orientatzailearekin eta psikologoarekin hitz egiten dut, beraiek egoera azter dezaten
 - Ez diot egoerari kasurik egiten
 - Gurasoekin hitz egiten dut

- * ***TDAH detektatzeko baliabiderik ezagutzen al duzu? Baiezkoa izatekotan zein baliabide ezagutzen dituzu?***
 - Bai
 - Ez
 - (.....)

- * ***AGNH duten umeeekin lan egiteko tresnarik ezagutzen al duzu? Baiezkoa izatekotan zein tresna ezagutzen dituzu?***
 - Bai
 - Ez
 - (.....)

- * ***Noizbait AGNHaren inguruko formakuntzaren bat jaso izan duzu? (detekzioan, gelako interbentsioan, etab.?)***
 - Ez dut inolako formakuntzarik jaso
 - Bai, detekzioan eta gelako interbentsioan
 - Bakarrik gelako interbentsioan
 - Bakarrik detekzioan
 - Unibertsitateko ikasgai batean

- * ***Irakasle moduan zer baliabide gustatuko litzaizuke izatea AGNH duten umeen ezaugarriak detektatzeko eta ondoren haiekin lan egiteko?***
 - Ume horien ezaugarriak azaltzen dituen gida bat izatea
 - Ume horiekin hitz egiteko modua azaltzen duen txosten bat
 - Ume horiekin lan egiteko modua azaltzen duen gida bat
 - Aurreko guztiak jasotzen dituen gida bat



6.2. IRAKASLEENTZAKO LAGUNTZA ESKULIBURU OSOA

ZER DA AGNH ETA NOLA LAGUNDU DIEZAIEKEDAN NIRE IKASLEEI.

IRAKASLEENTZAKO LAGUNTZA ESKULIBURUA



SARRERA

Egun, Euskal Herriko ikastola eta ikastetxeetan AGNH duten ikasleak aurki ditzakegu, baina Hezkuntza Sistema ez dago prest ikasle hauek dituzte beharrei erantzuteko. Irakasleek haien geletan AGNH duten ikasleak izatea oso ohikoa da, baina ez dakite beraiekin nola lan egin behar duten, ez baitute inoiz inolako formakuntzarik jaso. Gurasoen kasuan, ez dakite nola lan egin dezakeen haien seme-alabekin, galduta daude, noraezean inolako erantzunik jaso gabe. Ikastetxeetatik etxerako lanak jasotzen dituzte baina ez dauzkate erramintarik umeak laguntzeko.

Irakasle eta gurasoentzako laguntza eskuliburu honetan, AGNH duten umeak laguntzeko estrategiak agertzen dira. Alde batetik irakasleentzako AGNHaren ezaugarri nagusiak azaltzen dituen atal bat, detekzio goiztiarra ahalbidetu dezakeena. Beste alde batetik, irakasleentzako estrategia eta metodologia batzuk agertzen dira, ikasleen ikaskuntza prozesuan laguntzeko. Estrategia hauek, alderdi orokorretatik alderdi zehatzetara antolatuta daude, irakasleek baliabideak izan dezaten Berritzeguneak ebaluazio psikopedagogikoa eta umearentzat egokituak diren jarraibideak eman arte.

Bukatzeko, gurasoentzako atal bat dago, AGNH duten umeei gertatzen zaiena ulertzeko eta etxean erabil dezaketen teknika batzuk ezagutzeko. Horrez gain, Euskadiko AGNH elkarteekin harremanetan jartzeko informazioa agertzen da.



AURKIBIDEA

Sarrera

Aurkibidea

Zer da AGNH?

- Ezaugarri eta portaera nagusiak
- Aniztasunaren trataera
- Ume mugituen eta AGNH duten umeen arteko desberdintasun nagusiak

AGNHren detekzioa

- Lehen hezkuntzako AGNH duten ikasleen ezaugarriak
- Irakaslearen garrantzia detekzio prozesuan
- Irakasleek detekzio prozesuan jarraitu beharreko pausuak

Irakaslearen hezkuntza arreta

- ALDERDI OROKORRAK**
 - Ikaslearen kokapena
 - Gelaren egiturakera
 - Jarrera kontrolatzeko estrategiak
 - Klasea emateko modua
 - Ebaluaziorako estrategiak
- ALDERDI ZEHATZAK**
 - Irakurketa
 - Idazketa
 - Matematika
 - Motrizitate gaitasuna
 - Autoestimua
 - Gaitasun sozialak
 - Autokontrola
 - Motibazioa eta egoera emozionala
 - Ikasleen antolaketa hobetzeko estrategiak

Gurasoentzako aholkuak/ estrategiak

- Zer gertatzen zaie AGNH duten umeei?
- Zer egin dezaket guraso moduan?
- Euskal Herriko AGNH elkarteak

Bibliografia

1. ZER DA AGNH?

Arreta Gabeziagatiko Nahasmendua eta Hiperaktibitatea (AGNH) jatorri neurobiologikoa duen eta haurtzaroan azaltzen den nahastea da. AGNH lobulu frontaleko disfuntzio bat da sistema linbikoarekin harremanak dituena, garapen luzeko memoriaz eta sistema errepresentatiboaz arduratzen dena. Garuneko eskualde horretan disfuntzioa izateak kognizioaren eta emozioen kontrola ez izatea ekartzen du eta, horren ondorioz, jarrerarena ere.

1.1 Ezaugarri eta portaera nagusiak

Nahasmendua **hiru sintoma** desberdinekin ager daiteke: arreta mantentzeko ezintasuna, hiperaktibitatea eta oldarkortasuna.

Arreta mantentzeko ezintasuna adierazten duten ezaugarriak

- ◆ Arreta mantentzeko zailtasuna dituzte, bai jolasten duten bitartean, baita eskolako etxerako lanak egitean.
- ◆ Asko kostatzen zaie arauak eta instrukzioak jarraitzea.
- ◆ Haien lana nahastuta egoten da eta maiz gauzak ahazten dituzte.
- ◆ Batzuetan, ume hauek ez dutela entzuten ematen du.
- ◆ Ez dituzte lanak bukatzen edo erdi eginda usten dituzte
- ◆ Edozer gauzarekin entretenitzen dira eta askotan jarduera batetik bestera oso azkar igarotzen dira.
- ◆ Eskolako jardueretan ikasle hauek nahigabeko akatsak izaten dituzte, horien artean irakurtzen duten bitartean hitzak jatea edo ariketetan galdera batzuk ahaztea.
- ◆ Edozein zaratak edo mugimenduk haien arreta erakartzen du, egiten ari ziren jarduera eteten.
- ◆ Ume hauek modu ez-iraunkorrean lan egiten dute

Hiperaktibitatea adierazten duten ezaugarriak

- ◆ Zailtasunak behar denean eserita egoteko, gehiegizko mugimendua izaten dute, korrika eta jauzi egiten dutelako egoera eta leku desegokietan.
- ◆ Geldiezinak, urduriak eta mugituak dira.
- ◆ Ume hauek eskuak eta oinak mugitzen dituzte, mugimendurako beharra dutelako.
- ◆ Batzuk ez dakite jolas lasaiekin jolasten, mugimendu gutxi eskatzen dutelako.
- ◆ Eskuetan duten edozein gauzarekin jolasten dute eta maiz gauzak lurrera erortzen zaizkie.
- ◆ Oso ume hiztunak eta zaratatsuak izaten dira eta edozein gauza ukitzeko beharra izaten dute.

- ◆ Haien motrizitate mehea eta lodia sarri ez da oso ona eta horren ondorioz, haien lanetako betearazpena eta aurkezpena ez dira oso onak izaten.

Oldarkortasuna adierazten duten ezaugarriak

- ◆ Asko hitz egiten dute eta edozein gauzaren inguruan azalpen bat ematen dute
- ◆ Askotan galdera bat egiten zaienean, bukatu baino lehen erantzuten dute.
- ◆ Elkarrizketa batean askotan beste pertsonak eteten dituzte, horrek sortu ditzakeen ondorioak kontuan hartu gabe.
- ◆ Egiten hari diren gauza batek izan dezakeen ondorioen inguruan hausnartzea asko kostatzen zaie eta horrek akatsetan pertseberatzea ekartzen du, hau da, ez dute haien akatsetatik ikasten.
- ◆ Lanak egiterako orduan, ez dituzte ariketen enuntziatuak guztiz irakurtzen eta ez dituzte ariketak ebazteko estrategiarik erabiltzen.
- ◆ Lan bat hasi behar dutenean, askotan galdua ibiltzen dira, inguruan duten material guztia zabaltzen dute, zer egin jakin gabe.
- ◆ Zailtasun handiak dituzte inguratzen dituzten egoerak ulertzeko, horregatik egoera batetik bestera salto egiten dute egoeraren eta egoeraren atalen arteko erlazioa ulertu gabe.
- ◆ Jolasetan, asko kostatzen zaie lasaitasunez haien txanda itxarotea bere adineko ikasleekin alderatuta.

1.2 Aniztasunaren trataera

Ameriketako Psikiatria Erakundeak 2002. urtean egindako nahasmendu mentalen sailkapenaren arabera AGNH, Arreta Gabeziagatiko eta Jarrera Asaldatzailearen sailkapenaren barruan dago. Eskolako ikasle guztiek hezkuntza aukera berdintasuna eta laguntza curricularra eta pertsonala izateko aukera izan behar dute, haien gaitasunen arabera garapen pertsonal eta akademiko onena lortzeko, aniztasuna kontuan hartuta.

Bestalde, hezkuntza inklusiboak ikasle guztien konpetentziak ahalik eta gehien garatzea nahi du eta ume horiei kalitatezko hezkuntza izateko sarbidea bermatzen dien eskola bat izan behar da. Horretarako, goiz detektatzeko eta goiz esku hartzeko prozesuak lehenbailehen abiarazi behar dira.

1.3 Ume mugituen eta AGNH duten umeen arteko desberdintasun nagusiak

- ◆ AGNHren ezaugarriak (hiperaktibitatea, zabartasuna edo oldarkortasuna) ikasgai eta bizitzaren beste arlo guztietan agertu behar dira . Ume mugitu batek arreta ipini gabe edo mugitzen egon daiteke ikasgai batean edo irakasle konkretu batekin, baina ez bere bizitzako arlo guztietan.
- ◆ AGNH duten ikasleek oinak eta eskuak edozein momentuan eta egoeran mugitzen dituzte eta ume mugituek aldiz, urduri daudenean bakarrik mugitzen dituzte.

2. AGNH-REN DETEKZIOA

2.1 Lehen Hezkuntzako AGNH duten ikasleen ezaugarriak

AGNH dute umeek eskola adinean daudenean adierazten duten ezaugarriarik nabarmenena hiperaktitatea da. Sintomak eskola adina baino lehen ager daitezke, baina 7 urte baino gehiago dutenean diagnostikatzen da. Ume hauek 6 eta 12 urte bitarteko adina dute eta nabarmetzen diren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- ◆ Zaila da ohiturak eskuratzea, bai higienikoak baita akademikoak.
- ◆ Gehiegizko mugimendua dute eskola orduetan (aulkitik altxatu, zaratak egin, hitz egitea edo abestea...).
- ◆ Distraktzeko erraztasuna dute.
- ◆ Ez du pentsatzen edo planifikatzen egin nahi duena.
- ◆ Arazoak sor dezaketen komentarioak egiten dituzte.
- ◆ Ikaskideekin arazoak izateko probabilitate handia dute.
- ◆ Galderak arinegi erantzuten dituzte.
- ◆ Antolaketaren zailtasunak aurkezten dituzte.
- ◆ Jarraibideak jarraitzeko zailtasunak dituzte.
- ◆ Ahalegin mental mantentzea eskatzen duten zereginak egitea saihesten dute.
- ◆ Etxerako lanak zikin eta deskuidatuak entregatzen dituzte.
- ◆ Nahigabeko akatsak egiten dituzte eskolako lanetan.
- ◆ Lanak egiteari erresistentzia ipintzen diote.
- ◆ Beharrezkoak dituzten objektuak galdu edo ahaztu egiten dituzte.
- ◆ Frustrazioarekiko tolerantzia baxua dute.
- ◆ Ziurgabetasuna eta autoestimu baxua adierazten dute.
- ◆ Haien ekintzak nahita eginda bezala hautematen dira, nahiz eta nahaste baten ondorio diren.

2.2 Irakaslearen garrantzia detekzio prozesuan

Eskola AGNH detektatzeko eragile nagusia da eta, normalean, bertan lehen alarma altxatzen da. Umeek eskolan ordu asko ematen dituzte eta horrek irakasleei edo hezitzaileei posizio pribilegiatua ematen die ikasleen portaera eta funtzionamendu kognitiboa behatzeko, baita adin bereko beste ikasleekin alderatzeko eta ondorioz arazo bat egon daitekeela ohartarazteko.

Irakasle batek noizbait AGNH duen ikasle bat izan badu, kasu berrien detekzioa errazten du. Irakasle horiek nahasmenduaren sintoma eta jarrera aldaketa ohikoak ezagutzen dituztelako.

AGNHtik eratorritako jokabideak haur guztietan aurkitzen dira, baina, desberdintasuna benetan jokabide horien intentsitatea eta maiztasun handiagoa denean ikusten da. Beraz, alarma eman baino lehen, komeni da hezkuntza psikologoari, orientazio eta laguntza taldeari edo ikastetxeko orientazio sailari kontsultatzea beste jokabidea edo nahasmendu bat baztertzeko.

2.3 Irakasleek detekzio prozesuan jarraitu beharreko pausuak

1. Irakasle batek umea AGNH duela pentsatzen duenean, orientazio eta laguntza taldeari edo ikastetxeko orientazio sailari jakinaraziko dio.
2. Orientazio taldeak irakasle taldearekin batera, beharrezko informazioa bilduko du.
3. Ondoren, orientazio taldeak gurasoen baimena eskatuko du egindako txostena Berritzeguneari eta osasun zerbitzuari informazioa emateko eta ebaluazio psikoedagogikoa martxan jartzeko.

Irakasleentzako bestelako datu interesgarriak

- ◆ Txostena egiteko informazioa oinarriko hiru iturrietatik lortuko da: familiarik, irakasleetatik eta ikasleetatik; batzuetan, gizarte zerbitzuen txostena ere funtsezkoa izango da.
- ◆ Beharrezkoa da AGNHren ezaugarriak gutxienez umearen bizitzaren bi giro desberdinetan agertzea: etxean eta eskolan adibidez.
- ◆ Komenigarria da AGNH duen ume bat, ume mugitu batengatik ondo desberdintzea.
- ◆ Nahiz eta umeak bizitzako lehenengo urteetatik AGNHren ezaugarriak adierazi, ez da diagnostiko fidagarria izango umeak 6 edo 7 urte izan arte.
- ◆ Zentroaren orientazio arduradunak umearen banakako aurretiazko balorazioa egiteko diagnostikoa eta estatistika laugarren eskuliburuan (DSM-IV-TR) edo Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (CIE-10) deskribatutako irizpideak erabiltzen ditu.

- ◆ Ebaluatzen diren alderdiak honako hauek dira: arreta eta arreta kalitatea, ingurune desberdinetako portaera, autonomia gaitasunak eta ohiturak, egokitzapen sozialaren maila, gizarte harremanen gaitasunak, autoestimua, antsietatea, bizi-kalitatea, oinarrizko ikaskuntza eta/edo curriculumak atzerapenak zailtasunak izatea.

3. IRAKASLEAREN HEZKUNTZA ARRETA

Atal honekin hasi aurretik, esan beharra dago AGNH duten ikasle guztiak ez direla berdinak eta umearen arabera estrategiak egokitu behar direla. Eskuliburu honetan agertzen diren teknikak ezaugarri orokorretatik zehaztutara bideratuta dago, irakasleak ikasleen ikaskuntza prozesuan laguntzeko estrategiak izan dezaten.

3.1. Alderdi orokorrak

Ikaslearen kokapena

- ◆ Umea irakaslearengandik eta irakaslearen mahaitik hurbil kokatu.
- ◆ Umea arbetetik gertu kokatu.
- ◆ Umea ume gutxi dituen talde batean kokatu eta posible bada beste nahasmendu bat ez duen umeekin.
- ◆ Lan taldeak egiterako orduan, umea lagundu dezaketenean beste umeekin kokatu eta ahal bada bera baino lasaiagoak diren umeekin.

Gelaren egituraketa

- ◆ Klaseko materiala leku estrategiko batean kokatzea, ibilbide zehatzak izateko.
- ◆ Umea leihotatik, paperontzitik eta zarata handia dagoen lekuetatik urrundu.
- ◆ Guztientzako materiala eta material pertsonala arauen bitartez erregulatu.

Jarrera kontrolatzeko estrategiak

- ◆ Gelan, arau sinple eta konkretu batzuk ikusgai ipini. Arau horiek positiboki adierazita, adibidez, hobe da “ baxu hitz egin behar da” idaztea, “ezin da oihukatu” idatzi beharrean.
- ◆ Gelan lasaitzeko txoko bat kokatu, egunero minutu batzuk jardura horretarako erabiliz.
- ◆ Ikaskuntza materialaren inguruan arreta mantentzen dituen egoera guztiak indartzea.
- ◆ Ikasle hauei ardurak ematea eta beste erantzukizun batzuk ikasle guztien artean txandakatu.

- ◆ AGNH duten umeak momentu oro gainbegiratu. Sarri begiratu, adostutako keinuren bat izan edo ondotik pasatu, lana hasi duela ikusteko dira adibide batzuk.
- ◆ Tutoretzak. Ume hauekin 10 minutuko tutoretza indibidualizatuak egitea gomendatzen da. Bertan ikasleaz espero dena eta bere jarrera hobetzen lagundu dezaketen neurriak adosten dira. Tutoretza horietan ere limiteak eta gela barruan jarraitu beharreko arauak adostu daitezke. Tarte hauek umearekiko komunikazio positiboa ahalbidetu behar dute.

Tresna konduktistak

Errefortzu positiboa

Honi esker autoestimua eta errespetua lortzen dira. Hau lortzeko ikaslearen jarrera positiboak goraiatzean datza, horiek maizago egitea lortzeko asmoz. Jarraitu beharreko urrtasak:

- ◆ Ondo egin duen ekintza konkretu bat goratu. Adibidez: “oso ondo, eskua altxatu duzu eta zure txanda itxaron duzu”
- ◆ Egin duena modu zintzoan goretsi.
- ◆ Errefortsu soziala erabili (besteen aurrean zoriondu) edo sari txikiak eman (kromoak, gometxak...).
- ◆ Agenda baliabide bikaina izan daiteke irakaslea eta familia kontaktuan egoteko eta gurasoek ikus dezaten zer nolako jarrera duen umeak gelan. Bestalde, ez da gomendagarria agenda jarrera negatiboak komunikatzeko.

Iraungitzea

Oso erabilgarria da umeak duen jarrera bat egiteari uzteko. Ikaslea egokia ez den jarrera bat egiten dagoenean, ekintza horri ez erreparatzean datza, etorkizunean berriro egitea saihestuz.

Kontuan hartu behar da, pazientzia asko eskatzen duen teknika bat dela eta emaitzak lortzeko 3 eta 4 aste igaro daitezke. Estrategia hau ez da erabiliko, umearen edo ikaskideen segurtasuna arriskuan dagoenean.

Denbora kanpora

Estrategia honetan umea estimulurik gabeko leku batera eramatean datza, umeak saihestu nahi den ekintza bat egin ostean. Erabiltzeko jakin beharrekoa:

- ◆ Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzat egokia da
- ◆ Aurrera eraman aurretik umearekin adostuko da jarraitu beharreko jarrerak
- ◆ Leku egoki bat bilatzea (ikasgela, PTaren bulegoa...).

- ◆ Egon beharreko denbora umearen urte kantitatea izango da, hau da, umeak 4 urte baditu, gehienez 4 minutuko iraupena izango du.
- ◆ Ikaslea jarrera desegoki bat izan duenean, irakaslea berarengana hurbilduko da eta denbora kanpora proposatuko dio. Hau modu lasia batean esna behar zaio, adibidez “eseri aulkian isiltasunean eta guregana bueltatu hitz egiteko gai zaudenean”
- ◆ Behin denbora kanpora bukatu denean, umeari ekintzara itzultzeko gonbidapena egingo zaio, egindakoari inolako erreferentziarik egin gabe.

Umea negar, oihu edo egon beharreko lekua uzten badu, irakasleak denbora geldituko du eta ez du berriz martxan ipiniko umeak jarraitu beharreko jarrera mantendu arte. Hasieran denbora asko eskatuko du ekintza honek, baina konstante mantendu behar da irakaslea.

Horrez gain, teknika jarrera txar baten ondorio moduan aurkeztu behar zaio ikasleari eta ez zigor moduan.

Arauk eta limiteak

Arauk eta limiteak umeak jarrera egoki bat izaten lagunduko dute. Arauk egotea giro estrukturatua eta autokontrola mantentzen lagunduko dio. Arauekin batera, horiek ez betetzea duen ondorioa izango dute ondoan. Arau eta limiteen prozesua:

- ◆ Araua lengoai positiboan adieraziko da: “pilotarekin patioan jolastu dezakezu”
- ◆ Arauaren zergatia adieraziko da: “pilotarekin gela barruan jolastuz gero, gauzak apurtu daitezke”
- ◆ Araua ez betetzearen ondorioa adostuko da: “ gela barruan pilotarekin jolastuz gero, pilota gordeko dut eta bihar bueltatuko dizut”

Klasea emateko modua

- ◆ Ulertu eta lagundu, ikaslearen eta irakaslearen arteko harreman positiboa izan: beste edozein ikasleek baino gehiago laguntza eta animoak behar dituzte.
- ◆ Klasean parte hartzen lagundu: beraientzat oso beharrezkoa da norbaitek arreta ipintzea.
- ◆ Erakutsi zure interesa bere mahaietan lanean dagoenean. Hurbildu zaitez mahaira eta galdetu zelan doan edo laguntzarik behar duen eta lanean jarraitzeko animatu.
- ◆ Maiz galderak egitea edo arbelera ateratzeko eskatu, horrela arreta eta motibazio gehiago izatea lortuko da. Gainera, modu honetan zeintzuk diren bere ezagutzak jakingo da eta ez bakarrik azterketa batean idatzitakoa.
- ◆ Hitz egiten zaionean entzuten ez duela ematen du. Hori kanpotik jasotzen dituen estimulu kantitatea oso handia delako da eta ez da gai beharrezkoak ez diren estimulu



horiek baztertzen. Bere arreta bereganatzeko beharrezkoa da kontaktu bisuala edo umearengana gerturatzea berarekin komunikatzeko.

- ◆ Aginduak ematen ikasi. Kontaktu bisuala ezarri, aginduak banan- banan eman, zehatzak, motzak eta lengoia positiboan.
- ◆ Jarduera akademikoak umeen gaitasun kognitiboei eta exekutiboei moldatu. Identifikatu zenbateko iraupena duen umeak lan egiten eta bere lana sarri ikuskatzea, orientatzeko.
- ◆ Eskola egunean zehar atsedean aktiboak planifikatu, umea mugitzeko aukera izan dezan.
- ◆ Eskola eguna, lehenengo orduetan arreta gehien eskatzen duten jarduerak ezarri; saio bakoitzaren lehenengo atalean eduki garrantzitsuenak azaldu.
- ◆ Eduki akademikoak azaldu. Berriak diren gauzak proposatu, jardueren eta azalpenen estimulazio eta erakarpina handituz. Jarduerak ondo egituratuta egon behar dira eta aldi berean motibatzaileak eta dinamikoak izan behar dira.
- ◆ Lasaitzen ikasteko jarduera zehatzak irakatsi.
- ◆ Ikaskideen artean laguntzeko modua guztien artean adostu
- ◆ Itxaropen positiboak adierazi, ikasleen autoestimua eta taldearekiko uztardura bultzatuz.
- ◆ Etxerako lanak transmititzeko orduan, hobe da jarduerak fotokopia batzuetan ematea, modu horretan akatsak ekidituko dira. Ume hauek koadernoan idatzi behar badute, denbora gehiago beharko dute eta hitzak jateko arriskua dago eta gero etxean ez dira gai idatzitakoa ulertzeko.
- ◆ Egutegi eta agenda sinpleak erabiltzea umea bere betebeharrak antolatzeko gai izateko.

Jarduerak proposatzeko irizpideak

- ◆ Jarduera bakoitza lan sekuentzia motzago batean banatu, atal bakoitzarentzat dagoen denbora adieraziz
- ◆ Antolatutako lanak proposatu, epe motzekoak (10-15minutu), sekuentziaz, egin beharreko pausuak banan- banan adieraziz, jardueraren arrakasta bermatuz. Horretarako, laguntza bisualak, ahozkoak edo manipulatioak eskaini.
- ◆ Jardueretarako erabiltzen den materiala estimulatzailea izan behar da.
- ◆ Ikasleari egin beharrekoak ahozkatzea eskatu, benetan ulertu duela ziurtatzeko.



Ebaluaziorako estrategiak

- ◆ Azterketak irakaskuntza eta ikaskuntza metodo gisa erabili eta ez bakarrik umea kalifikatzeko.
- ◆ Ebaluatu eta egokitu probak egiteko denbora eta kontzentrazioa bultzatzen duen leku bat eskaini. Gogoratu AGNH duten umeek azterketa proba bat egiteko behar duten denbora kalkulatzeko eta antolatzeke zailtasunak dituztela.
- ◆ Ziurtatu galderen adierazpenak arretaz irakurri dituela eta behar izanez gero, nabarmendu erantzuna gidatzen lagundu dezaketen hitzak.
- ◆ Azterketak antolatu. Hobe da ikaslea maiz aztertzea, baina galdera gutxiago erabiliz.
- ◆ Azterketa bi zatitan banatu, egun desberdinetan egin ahal izateko.
- ◆ Baloratu ikasleak ikasitako baita prozesuan egindako ahalegina ere.
- ◆ Probak egokitzea: galdera kopurua murriztea, gako hitzak nabarmendu, proba berean galdera-formatu desberdinak konbinatu (garapena, definizioa, aukera anitzekoa, osatzea, bi aukeren artean ...).
- ◆ Proba orokorraren denbora handitu, ikaslearen neke kontuan hartuta. Horrek ez du esan nahi bere iraupena bikoiztu behar denik, baizik eta denbora gehiago ematea positiboa izango den ala ez ebaluatzea.
- ◆ Azterketa ahoz egin edo ahozko eta idatzizko ebaluazioak bateratu.
- ◆ Eman erantzunak pentsatzeko denbora eta erantzuna emateko beste denbora tarte bat.
- ◆ Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:
 - ∞ Ohartarazi aste bateko aurrerapenarekin azterketen egutegia ematea.
 - ∞ Eguneko lehen orduetan ebaluatu.
 - ∞ Ez jarri egunean azterketa bat baino gehiago.
 - ∞ Galderak arretaz irakurri dituela ikuskatu eta egin beharreko ulertu duela gainbegiratu.
 - ∞ Azterketa entregatu aurretik, galdera guztiak erantzun dituela begiratu.

3.2. Alderdi zehatzak

Irakurketa

Ume hauek idaztean izaten dituzten akats ohikoenak omisioak, adizioak, eta ordezkapenak izaten dira.

Bi kontsonante elkarrekin daudenean asko kostatzen zaie irakurtzea, horien artean tr,bl, pr eta bl. Horretarako, **entrenamendua** egitea gomendatzen da, hau da, egunero letra elkarte horiek dituzte txartelak irakurtzea.

Irakurketa ulermen txikia dutenean, testuak txarto ulertzen dituzte eta egin beharreko lotuta agertzen diren instrukzioak ulertzea asko kostatzen zaie. Teknika aproposena **borobildu** izena hartzen du, instrukzioetan, egin beharreko jarduera adierazten duen hitza borobiltzean datza, horrek ulermenean lagunduko dio.

Ume hauek **desmotibatuta** daude irakurri behar dutenean, batzuetan aurreko porrotengatik edo haientzat suposatzen duen zailtasunagatik. **Umeak duen motibazioan oinarritu** behar da, umea testu laburrekin, entretenituekin eta berarentzat erakargarriak diren ekintzekin entretenitzea. Adibidez: marraztea, erantzun anitzak ematea, galdera eta erantzunak dituzten jolasak, tituluak edo amaierak asmatzea...

Irakurtzeari uko egiten dutenentzat, haiek aukeratutako testuak irakurri behar ditu. Arazo honi irtenbidea emateko bi modu daude, lehenengoa **partekatutako irakurketa** da, umeak irakaslearekin eta beste ikaskideekin irakurtzea. Irakasleak esaldiaren zati gehiena irakurriko du eta ikasleak esaldiaren lehenengo 2 hitzak. Pixkanaka irakasleak gutxiago irakurriko du eta ikasleak gehiago. Beste modu batzuk: bakoitzak hitz bat irakurtzea, bakoitzak esaldi bat, paragrafo bat edo orrialde bat.

Bigarrena, **taldean irakurtzean** datza, ume batzuek uko egiten diote irakurketari besteen aurrean egin behar dutelako. Horri irtenbidea emateko, umeak irakurriko duen atala adostu daiteke, prestatuta eramateko. Gainera horrelako ekintzek autoestimua indartzen dute.

Irakurketa motela, silabeatuta edo presazkoa, AGNH duten ikasleek izan dezaketen beste arazo bat da. Horri irtenbidea emateko **metronomoa** erabiltzea gomendatzen da. Metronomoaren erritmo bakoitza silaba bat izango da eta pixkanaka horren abiadura handituko da. Puntuazio markak ikustarazteko erritmo bat pasatzen utziko da.

Bestalde, **eguneroko entrenamendua** asko laguntzen du. Umeak testu bat irakurriko du minutu batez, minutua igaro ondoren bukatu duen hitzean marra bat egingo da. Gero beste minutu batez irakurriko du testu berdina, eta aurrekoan bezala bukatu duen hitzean orain bi marratxo egingo dira. Bukatzeko hirugarren aldiz egingo da eta hiru marratxoekin markatuko da. Bukatzean ikasleak irakurritako hitzak zenbatuko ditu, umeak ikustean lehengo alditik hirugarrenera izandako hobekuntza, asko poztuko da.

Gela osoa aldi beran irakurtzen duenean ohikoa izaten da AGNH duten umeak **galtzea** eta irakasleak galdetzen dietenean “nondik goaz?” galdetzea. Horri irtenbidea emateko, **kartoi markatzailea** erabili daiteke, umeak berak sortutako kartoi bat izatea, plastifikatuta dagoena, hori irakurtzen dagoen lerroaren azpian kokatuko du, galtzeak ekiditeko asmoz.

Idazketa

AGNH duten ikasleak idazten dutenean honako akatsak izaten dituzte maiz: hitzen elkarketak; hitzen frakmentazioa; hitzetan hizkiak gehitzea; hizki, silaba edo hitzen omisioa; hizkien, letren edo hitzen sustituzioa eta hitzak edo silabak errepikatzea.

Umeei **hitz elkarketak, frakmentazioak, omisioak, sustituzioak eta errepikapenak** egiten dituztenean, honako estrategiak erabiltzen dira:

- ◆ **Idazteko fitxak:** fitxa horretan agertzen diren hitzak akatsik gabe idatziz gero sari bat eman ahal zaio. Errefortsu positibo honi esker, arreta maila handituko da eta ikasleak akats gutxiago egingo ditu.
- ◆ **Letreiatu:** garrantzitsua da umeei idatzi dutenaren errepasso bat egitea eta hori ohitura bihurtzea. Letreiatzearen entrenamendua testu laburrekin egin behar da, umearentzat jardura neketsua delako.

AGNH duten ikasleek **kaligrafia pobrea** eta desantolatua dutenean, honako estrategiak erabiltzen dira:

- ◆ **Txantiloiak:** ikasleari bi edo lau lerroko txantiloiak eman ahal zaizkio, idazteko instrumentu desberdinak erabiltzeko. Badaude, idazteko objektuak hobeto hartzeko adaptadoreak eta ikasleen kaligrafia hobetzen laguntzen dutenak. Batzuetan ere, egokia da, ikasleari arkatza hartzeko postura eta modua nolako den irakastea.
- ◆ **Ondo idatzitako hitzak:** Teknika hau ikasleek idazkera pobrea eta desantolatua dutenean erabiltzen da. Ikasleak akats konkretuak baditu, horiek praktikatu behar dira. Akatsak arreta faltagatik badira, hobe da ondo idatzitako lana zoriontzera. Idatzi beharrekoa idatzi ondoren, ikaslearekin ondo idatzitako hitzak birpasa-tuko dira, ondo egindako nabarmenduz. Adibidez, letra guztiak marraren gainean idatzi dituzte.

Gehiegizko ortografia akatsak izaten dituzte gelako beste ikasleekin alderatuta. Askok kostatu zaie arau ortografikoak gogoratzea eta haien arreta faltaren arazoagatik asko kostatu zaie automatizatzea eta akatsak egiten dituzte.

- ◆ **Errepassatzea:** egin beharreko lana bukatzean egindakoa birpasa-tzea.
- ◆ **Hiztegia lantzea:** memoria bisuala erabili adibidez, marrazkiak eta hitzak elkartzea, hiztegi propioak eraikitzea, urkatu jolasa edo hitzen idazkera gainazal zimurretan...



Matematika

Enuntziatuaren ulermen txikia. Arazo hau, ume hauen oldarkortasunagatik edo irakurtzen duten bitartean arreta maila txikia jartzen dutelako gertatzen da. **Autoinstrukzioa**, enuntziatuaren aurrean ikasleak datuak azpimarratzen ditu eta ekintza adierazten duen edo dituen hitzak borobiltzen ditu. Zein operazio matematiko egin behar duen ulertzen ez duenean, autoinstrukzio hauek eman ahal zaizkio:

Gehiketa = Gauzak ipini (+)
Kenketa = Gauzak atera (-)
Biderketa = Gauzak ipini (+) Askotan (x)
Zatitu = Gauzak banatu (:)

Umearekin lan egiteko beste modu bat, ariketetan umeari zer egin behar duen eskatzea da, emaitza kalkulatu gabe.

Nahigabeko akatsak ikurrak erabiltzean: ikasle hauek oldarkortasunaren eta arreta mantentzeko zailtasunagatik ikurrak adierazten akatsak egiten dituzte. Beraz egokia da ikur bakoitza kolore batekin identifikatzea eta ariketa egin aurretik ikurra margotzea.

(+) Berdea (-) gorria (x) urdina (:) laranja

Zailtasunak kontzeptu matematikoak lortzeko. AGNH duten umeak problemak ebazten hari direnen batzuetan zailtasunak dituzte enuntziatuak ulertzeko, hau da, bere gertutasunetik urrun dauden datuak erabiltzen badira ez dute ulertuko. Baina, datu sinpleagoak eta egunerokotasunarekin lotutakoak badira errazago ebatziko dituzte.

Problemak ebazteko zailtasuna. AGNH duten ikasleek zailtasunak izan ohi dituzte gauzak antolatzean, atal garrantzitsuak identifikatzeko edo aurretik ikasitako kontzeptuak erabiltzeko. Horretarako STOP ikurra erabili daiteke umeari gogoratzeko gelditu behar dela eta pentsatu behar duela. Honako hauek dira jarraitu beharreko pausuak:

Gelditu: arkatza mahai gainean uzten du
Begiratu: Orrialdea begiratu eta idatzita dagoena irakurtzen du
Erabaki: datuak azpimarratuko ditu, ekintza adierazten duen hitza bilatuko

du

Jarraitu: Arkatza hartu eta erabaki duena egingo du

Errepasatu: Egindako ekintza berriz egin, emaitza konprobatuz eta sentsua duen galdetzen dio bere buruari.

Kalkulu matematikoan zailtasunak. Arazo hau ikasleek erantzun oldarkor bat eman dutelako sortzen da. Oro har, ikasle hauei pentsatzeko denbora eman behar zaie eta erreparatzeko ohitura sortzen lagundu behar zaie.

- ◆ **Kalkulu mentala:** egunero kalkulu operazio mentalak egitea, zenbaki sinpleak erabiliz, umeek erabiltzen duten atzamarrekin zenbatzeko estrategia murrizteko.
- ◆ **Zenbakiaren errepresentazio mentala:** ikaslea begiak itxiko ditu eta batetik bestera zenbakiak (makiltxoak) buruan ikusiko ditu. Ondoren gehiketa bat egiterako orduan zenbaki handiena buruan ikusiko du eta pixkanaka makiltxoak gehituko dizkio. Adibidez $6+2=$ Umeak buruan 6 makiltxo ikusiko ditu eta bat gehituko dio, orduan 7 ikusiko ditu buruan, baina beste bat falta zaionez, beste makiltxo bat gehituko dio, 8 lortuz.

Motrizitate gaitasuna

AGNH duten ikasle askok motrizitatea gaitasunaren nahasmendua izaten dute, ume traketsak eta motrizitate fina egiteko zailtasunak dituzten umeak dira. Ume hauek ez dituzte ibiltzeko, korrika egiteko, igeri egiteko edo bizikletan ibiltzeko zailtasunik izaten baina bai dantza egiteko, kirol tresnak erabiltzeko edo lan artistikoak (marraztu, margotu, moztu...) egiteko.

Gorputz Hezkuntzako saioretan aurre egin behar diete eskakizun motorra duten jarduerak askori. Arazo hauek autoestimuan eragin zuzena izan dezakete frustrazioa,edo desmotibazioa sortuz.

Ikasleari emango zaion laguntza neurritsua izan behar da, hau da jolasaren dinamikaren barruan, horien artean:

- ◆ **Laguntza fisikoa:** jarduerak gainditzeko beharrezkoa duen laguntza ematea da. Umeari eskua ematea edo bere ondoan joatea ariketa egiten duen bitartean.
- ◆ **Keinuen bitartezko laguntza:** keinuak egitea.
- ◆ **Ahozko laguntza:** egin beharreko sinpleak ematea, hauek elkarlotuta joan daitezke keinuekin.
- ◆ **Modelaketa:** Umeari egin beharreko ekintzaren eredu bate ematea, modu horretan ikaslea gai izateko ikaskideak edo irakaslea imitatzeke.

- ◆ **Modelatzea:** umeari ekintza berriak erakusteko erabiltzen da. Beharrezkoa da egingo den lana azaltzea eta atal txikiagoetan banatzea.

Garrantzitsua da **jolas kooperatiboak** garatzea. Hauek arbuio eta bazterte egoerak gertatzeko probabilitatea murrizten dute, motrizitate esperientzia negatiboak izateko arriskua ere murrizten dute eta klima positiboa eta tolerantzia eskaintzen dute. Gimnasioaren klima antolatzeke bi modu daude. Bata, espazioa ikasleek modu librean esploratzeko antolatu eta bestea istorio bat hari moduan erailtzea.

Autoestimua

Ikasle batek gelan autoestimua baxua izateak bere errendimendua txikitzea ekar dezake, horregatik lan handia egin behar da autoestimua handitzen. Orientabideak:

- ◆ Irakasleak AGNH duen ume bat gelan izateak sortzen dituen zailtasunak onartzea.
- ◆ Behin ikasleak dituen zailtasunak identifikatu eta gero, errazagoa da egiten dituen ahaleginak identifikatzea eta ondorioz, esfortzu horiek zoriontzea.
- ◆ Konfiantza maila altuagoa eskaini, erakutsi irakasle moduan ume hori garrantzitsua dela.
- ◆ Irakasleen lengoia aldatzen saiatu, EZ hitza alde batera utziz. (ez korrikarik egin, ez molestatu ikaskideak...)
- ◆ Ikaslearen salaketak, barregarri uzteak eta errespetu faltak ekiditu. Sentimendu negatiboak adierazteko hobe da honako formula hau erabiltzea:

“Triste **sentitzen naiz**, gela barruan pilotarekin jolasten **duzunean**, beste ikaskideei min egiten diezulako.”

- ◆ Ikaslearen integrazio sozila gela barruan bultzatzen duten jarduerak egitea: lan taldeak, dinamikak, jolasak...
- ◆ **“Izan” aditza erabili beharrean “egon” aditza erabili**, modu horretan ez da bere autoestimua suntsitzen eta ekintza zuzena ikusaraziko zaio. “oso desantolatua zara” esan beharrean, hobe “zure mahia desantolatua dago” esatea.
- ◆ Bost puntu ikaslearen autoestimua hobetzeko
 1. Den moduan onartu.
 2. Aurkitu dituen alderdi onak eta berari esan.
 3. Berarengan sinetsi eta konfiantza duzula ikusarazi.
 4. Mezu positiboak bidali.



5. Autoestimua indartzeko lengoai erabili. Lengoai positiboa, salaketarik, berregari uzterik eta komentario ironikorik gabe.

Gaitasun sozialak

Gaitasun sozialak gizakiak inguru desberdinetan beste gizakiekin harremanak mantentzeko erabiltzen dituzten baliabideak eta estrategiak dira. Haurtzaroan gaitasun sozial positiboak izanez gero, adin nagusian zoriontsuak izaten lagunduko dute, autoestimua indartzen dutelako. Gaitasun hauek denborarekin ikasten dira eta horregatik umeari jarraitu behar dituen pausuak erakutsi behar zaizkio.

AGNH duten ikasleek nahasmendua ez duten ikasleek baino gaitasun sozial gutxiago dituzte. Hau haien oldarkortasunaren ondorioz, momentu oro eskatzen duten arretaren ondorioz edo haien emozioak erregulatzeko duten zailtasunaren ondorioz izan daiteke.

Gaitasun sozialak hobetzeko estrategiak:

- ◆ Denbora tarte bat erabili gaitasun sozialak lantzeko
- ◆ Ikasleei bere ingurunearen seinaleak ulertzen eta hausnartzen erakutsi (aurpegiko keinuak, arrisku seinaleka, besteen keinuak...)
- ◆ Bere ekintzen ondorioak aztertzen erakutsi, aien portaera egoera desberdinetara moldatzen ikasteko.
- ◆ Ikaskideekiko harremanak sustatu: jolas kooperatiboak, talde jolasak...
- ◆ Estrategia sozialak landu, gelan klima egokia sortuz, arauekin konpromezua hartzen.
- ◆ Gatazken konponketan laguntzen.
- ◆ Gizarte harremanetako hizkuntza doitzen ikasi, hausnartzeko eta komunikatzeko elementu adierazgarriak kontuan hartuz.

Autokontrola

- ◆ **Ez erabili denbora muga duten jarduerak**, ikasleek emango duten erantzuna inprobisatua izango delako.
- ◆ **Umeari laguntza eskaini ikasteko prozesuan estrategia analitikoak eskuratzeko, hala nola:**
 - ∞ Arazoaren emaitzari garrantzia ematea ahozko azalpen betan bitartez.
 - ∞ Arreta mantentzearen entrenamendua egitea.
 - ∞ Erantzun egokia emateko momentua dela erabakitzen laguntzea.
- ◆ **Umeari bere buruarekin hitz egiten irakatsi, egiten dagoena bere buruari kontatuz.**
- ◆ **Laguntza eskaini memoria estrategia egokiak erabiltzeko.**



- ◆ **Arazo baten aurrean ebazteko estrategia desberdinak erakustea**, beste jardueretara transmititzeko gaitasuna lortzeko asmoz.
- ◆ **Talde lanak bultzatzea**, lan taldeetan lan egiteak abantailak dakartzalako erabakiak hartzerakoan, ikuspuntu desberdinak agertzen direlako.
- ◆ **Autoinstrukzioa**

1. **Gelditu:** arkatza mahai gainean uzten du
2. **Begiratu:** Orrialdea begiratu eta idatzita dagoena irakurtzen du
3. **Erabaki:** datuak azpimarratuko ditu, ekintza adierazten duen hitza bilatuko du
4. **Jarraitu:** Arkatza hartu eta erabaki duena egingo du
5. **Errepasatu:** Egindako ekintza berriz egin, emaitza konprobatuz eta sentua duen galdetzen dio bere buruari.

- ◆ **Erlajazioa:** erlajazio tekniken bitartez umearen oldarkortasuna eta haserrea kontrolatzen lagundu daiteke. *Dortokaren teknika* oso erabilia da horretarako, hasteko irakasleak dortokaren ipuina irakurriko dio eta ikaslea dortokarekin identifikatuta sentituko da. Ondoren, irakaslea umearentzat estresagarria den egoera bat identifikatzen duenean “dortoka” hitza izango du eta umeak dortokaren posizioa hartuko du (umea pixkanaka uzkuratuz joango da, bere gorputzeko atal guztiak gogortuko ditu, hamar arte zenbatuko du eta berriz ere lasaituko da). Irakaslea entrenamendu hau zorionduko du, umea etorkizunean estresagarria den egoera batekin topo eginez gero, modu autonomoan teknika erabiltzeko.

DORTOKAREN IPUINA

Dortokak bere kolorek prestatu zituen, prest zegoen bere lana egiteko. Baina beste dortoka bat bere ondotik pasatu zen eta kolore guztiak bota zizkion lurrera. Bere lehenengo pentsamendua koloreak bota zituen dortoka jotzea izan zen baina, irakasleak erakutsitakoa egingo zuela erabaki zuen.

Orduan GELDITU zen, bere oskolean sartu zen eta hamarretik zerora zenbatu zuen: 10, 9, 8, 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1, 0. Arnasa hartu zuen eta bere buruari galdetu zion: Nola sentitzen naiz? Zergatik sentitzen naiz horrela? , konponbide bat bilatuko dut.

Gero, oskoletik ateratzean zer egingo dudan pentsatuko dut. Horrela dortokak ikasi zuen haserretzen zenean ezin zuela burutik pasatzen zitzaion lehenengo gauza egin. Haserre



zegoenean burutik pasatzen zitzaizkion gauza guztiak txarrak zirelako bai berarentzat baita bere lagunentzat ere.

Orain pozik sentitzen zen eta bere lagunekin hobeto erlazionatzen hasi zen.



Motibazioa eta egoera emozionala

- ◆ **Estimulazioa sortzen duten egoerak sustatzea.** Egoera hauek ikasleei zuzenduta egon behar dira eta , lorpenak edo aurrerakuntzak zoriondu behar dira. Egokia da ere batzuetan AGNH duten ikasleei garrantzitsuak diren rolak eskaintzea.
- ◆ **Ikaslearen ikaskuntza estiloa, beraren motibazioak eta preferentziak ezagutzea.** Ikaslearen motibazioa bultzatzen duten estrategia metodologiko desberdinak ezartzea, adibidez: marrazkiak, material manipulatiiboak, ikasleren intereseko gaiak...
- ◆ **Jarduera adierazgarriak aurkeztu, ikaslea motibatzen gai direnak.** Erantzunak aurkitzeko eta umearen mailara egokituta daudenak. Ez erabili ikaslearen porrota ekar dezaketen jarduerak.
- ◆ **Umeari bere akatsen balorazio objektiboa egiten lagundu, baina infrabalaratu gabe.**
- ◆ **Ikasleak egindako aurrerakuntzak ikusteko metodoak erabili.** Egindako lan bat aurretik egindako beste lan batekin konparatzeko aukera eman edo aurrerapen erregistroak erabiliz.
- ◆ Eskatu bere **lanak erreparatzeko** entregatu aurretik akatsaren bat egotekotan zuzentzeko aukera izateko edo zoriontzeko akatsik ez balego.

Ikasleen antolaketa hobetzeko estrategiak.

- ◆ **Giro antolatua, estrukturatua, motibatzailea eta errutinekin mantendu.** Honekin ikasleek momentu bakoitzean zer egin behar duen jakingo du. Giroa egokia izateak



ikaslea gelan seguru sentitzea ekarriko du. Bestalde oso garrantzitsua da limiteak eta arauak sustatzea ikaslearen autokontrola bermatzeko.

- ◆ **Ikasleari egingo diren lanak, gogoratzea, errepikatzea eta ahal bada aurreratzea.** Gauzak esaten zaizkionean, beharrezkoa da begietara begiratzea eta ziurtatzea ulertu duela.
- ◆ **Ohikoa da AGNH duten ikasleak eskolako lanetarako baita etxeko lanetarako beharrezkoak dituzte gauzak ahaztea. Agendak garrantzia handia dauka.** Funtsezkoa da irakasleek beharrezkoa duten materiala motxilan sartu behar dutela gogoratzea eta horrez gain agendan egin eta ikasi beharrekota apuntatu dutela ikuskatzea, ondoren etxean gurasoek laguntzeko aukera izateko. Ez erabili agenda ikaslearen gauza txarra idazteko adibidez: “ez ditu euskara etxerako lanak egi” hobe da “ hitzordua eskatu” idaztea. Modu horretan gurasoek irakaslearekin hitzordua eskatu behar dutela jakingo dute.
- ◆ **Irakasleak diktaketa bat egiten duenean edo arbelen idazten duenean, denbora tarte handia hutsi behar du txirrina joa aurretik, denbora nahikoa izateko dena lasai kopiatzeko.** AGNH duten ikasleak besteak bezala, patiora edo etxera joateko gogo berdina daukate baina horiei ez die astirik emango kopiatzeko.
- ◆ **Irakaslea egin beharreko lana azaltzen duen bitartean AGNDH duten umeengana hurbilduko da ziurtatzeko ondo egiten daudela.**
- ◆ **Gelan ikusgai ipini egutegi bat eta ekintzen zerrenda bat.** Gelako leku zehatz batean kokatu edo ikaslearen mahaian itsatsi. Bertan azterketak, lanak, ekintzak edo txangoak idatzi, ikaslea aurretiaz zer duen jakiteko.

4. GURASOENTZAKO AHOLKUAK /ESTRATEGIAK

Guraso izanda gauza asko daude AGNH duten seme-alabak laguntzeko, baina lagundu aurretik zer gertatzen zaien jakin behar da.

4.1 Zer gertatzen zaie AGNH duten umeei?

- ◆ Ez dute entzuten
- ◆ Ez dute arretarik jartzen egiten dituzten gauzetan
- ◆ Ez dituzte arauak barneratzen
- ◆ Gauzak egin dezaten gurasoek asko tematu behar dira
- ◆ Burutik pasatzen zaien lehenengo gauza esaten dute

- ◆ Edozein estimulak entretenitzen dituzte
- ◆ Esfortzu mental handia eskatzen duten jardueretan jarrera mantentzea asko kostatzen zaie
- ◆ Ez dituzte ekintzen ondorioak ulertzen, pasa daitekeen egoerari ez diote aurre hartzen
- ◆ Zigorrek ez diete balio jarrera onak ikasteko
- ◆ Ez dute denboraren kontzientziarik, denbora asko behar duten ekintzetan denbora gutxi erabiltzen dute edo kontrakoa.

Hori gutxi izango balitz, zailtasun hauek edozein egoeratan gertatzen zaie: garbitasunean, antolaketan, elikaduran, etxean laguntzen, etxerako lanak egiten... Ekintza hauetan guztietan **zailtasunak handitzen dira emozio negatiboak eta positiboak agertzen** direnean. Emozioak kontrolatzea zaila da beraientzat eta horrek egoera zailtzen du, bai umearentzat baita laguntza eskaintzen dagoen gurasoarentzat.

4.2 Zer egin dezaket guraso moduan?

Gurasoek haien seme-alabak erregulatu eta atokontrolatzen ikasteko estrategiak izan behar dituzte. Hasteko umearen ingurua antolatu behar da, errutinak, etxearen antolaketa, ordutegiaren planifikazioa, aginduak, arauak... Ondoren, informazioa helarazi behar da, bai kartelen, argazkien, marrazkien, erlojuen edo ikur seinale akustikoen bitartez. Bukatzeko, arazoaren aurrean erabiltzeko teknika desberdinen erabilpena sustatu behar da.

Teknikak

Jarrera kontrolatzeko kanpo laguntza

Umeek egoeraren arabera zer nolako jarrera izan behar duten kontrolatzeko kanpo laguntza beharko dute. Kanpo laguntza hori gurasoak izango dira eta umearentzat euskarri izan behar dira, laguntza behar izatekotan nora joan jakin dezaten. Gurasoak dira zer nolako jarrera izan behar duten esango dietenak, beti ere laguntzeko asmoarekin.

Ahoz pentsatzea eta egin beharrekoa errepikatu

Guraso batek agindu bat ematen duenean, umeak ahaz errepikatuko du. Modu horretan, zer egin behar duen jakingo du, pentsatzeko momentu bat izango du eta horrekin umea ekintza egiteko probabilitateak handituko dira.



Modelatu

Gurasoak umearentzat eredu bihurtzen dira, umeek gizakiak akatsak egiten dituela eta bizitzan zailtasunak gainditu behar direla ulertu behar dute. Gurasoek ikusarazi behar diete haien seme alabei, haiek ere arazoak dituztela eta horiei irtenbide a emateko auto-instrukzioaren faseak jarraitzen dituztela.

1. Zein da nire arazoa?
2. Zein izango da arazoa konpontzeko plana?
3. Ahoz errepikatzen dut ez ahazteko
4. Nire plana erabiltzen nago?
5. Lortu dut?
6. Nire burua zoriondu plana erabiltzeagatik eta ondo egiteagatik.

Teknika hau eguneroko ekintzekin praktikatu daiteke, giltzak ahaztean, erosketak egiterako orduan, Gorputz Hezkuntzako motxila prestatzean... Egoera guztietan jardura ahoz egiten modelaketa hobetu daiteke. Gurasoek haien seme alabek teknika hau barneratze lortzen badute ume horiek arazoaren konponketarako erabiltzen ikasiko dute.

Auto-instrukzioa

Umeari erakutsi behar zaio arazo batekin topo egiten duenean edo zailtasun batekin aurkitzen denean, egin behar duen lehenengo gauza GELDITZEA eta zer gertatzen hari de IKUSTEA dela, ondoren ERABAKI bat hartzeko, ekintzarekin JARRAITU eta bukatzeko egindakoa ERREPASATU.

GELDITU → IKUSI → PENTSATU / ERABAKI → JARRAITU → ERREPASATU

Pentsatzeko fase horretan umeek honako galderak erabili dezakete laguntza moduan: Zer egin behar dut? Nola egingo dut? Zein izango da nire plana? Nire plana jarraitzen nabil? Nola egin dut?



4.3 Euskal Herriko AGNH elkarteak

Jarraian agertzen diren erakundeak lagungarriak izan daitezke eskola eta familia arteko harremanak indartzeko. Zalantzaren bat izanez gero haiekin kontaktuan jar zaitezke. Bestalde, EUSARGHI Fundazioa dago, Euskadiko Arretaren Gabezia eta Hiperaktibitatea Federazioa, Euskadiko AGNH erakunde guztiak batzen dituena.



EUSARGHI

Euskadiko Arretaren Gabezia eta Hiperaktibitatea
Federazioa
federazioa@eusarghi.org
943459594




AHIDA

Asociación de Padres de Hiperactivos con Déficit
de atención e impulsividad.
Centro de voluntariado Parque de Gobelaurre s/n
48930 Getxo-BIZKAIA
ahida05@euskalnet.net
944 315 783



ADAHIgi

Asociación de Déficit de Atención con
Hiperactividad-Guipúzcoa.
C/ Katalina Eleizegi, 40 bajo 20009 DONOSTIA
adahigi@wanadoo.es
943 459 594



ANADAHI

Asociación de Niños y Adultos con Déficit de
Atención, Hiperactividad e Impulsividad.
Pintor Vicente Abreu 7, bajo 01008 GASTEIZ
anadahi@euskalnet.net
945 213 943

5. BIBLIOGRAFIA

- ◆ Amador, J.A., Forns, M. eta González, M. (2010). *Transtorno por déficit de atención con Hiperactividad (TDAH)*. Madril, Espainia: Síntesis editoriala.
- ◆ American Psychiatric Association, APA. (2002). *DSM-IV-TR. Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales. Texto revisado*. Barcelona: Masson
- Angulo, M.C., Fernandez, C., Garcia, F.J., Ongallo, C.M., Prieto, I. eta Rueda, S. (2008). *Manual de atención al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de Trastornos graves de conducta..* Andaluziako Batzarra: Hezkuntza Kontseilua.
- ◆ Berritzegunak. (2019). *Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana 2019-2022*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila.
- ◆ Bonet, T. (2015). Recomendaciones para padres de niños con TDAH. TDAH y Tú. Honako web orrialdetik berreskuratua: <http://www.tdahytu.es/recomendaciones-para-padres-de-ninos-con-tdah/>
- ◆ CADAH fundazioa. (2012). Ideas clave en la respuesta educativa para el alumnado con TDA-H. Honako web orrialdetik berreskuratua: https://www.fundacioncadah.org/web/doc/index.html?id_doc=145
- ◆ CADAH fundazioa. (2012). TDAH en el aula. "Trastorno por Déficit de Atención e Hiperactividad". Guía para docentes. Santander.
- ◆ CADAH fundazioa. (2012). TDAH: Adaptaciones en Educación Física para niños con NEE. Honako web orrialdetik berreskuratua: <https://www.fundacioncadah.org/web/articulo/tdah-adaptaciones-en-educacion-fisica-para-ninos-nee.html>
- ◆ EUSARGHI. (2015). Zer da AGN-H? Honako web orrialdetik eskuratuta: <https://www.eusarghi.org/eu/2015-06-20-17-10-41/zer-da-agn-h>
- ◆ Garrido, E. (2017). *500 preguntas y respuestas sobre la hiperactividad (TDAH)*. Espainia: Eunate editoriala.
- ◆ Gobierno de Navarra (2012). Guía para el profesorado. Entender y atender al alumnado con déficit de atención e hiperactividad (TDAH) en las aulas. Nafarroa: Hezkuntza Saila

- ◆ Guillén, P. (2014). No cualquier niño movido o conteston es TDAH. Conocimiento compartido. Federación Española de Asociaciones de Ayuda al Déficit de Atención e Hiperactividad. Honako web orrialdetik berreskuratua: <https://feadah.org/blog/no-cualquier-nino-movido-o-conteston-es-tdah/>
- ◆ HEZIBERRI 2020. (2014). *Marco del modelo educativo Pedagógico*. Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzak. Honako web orrialdetik berreskuratuta: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_heziberr/adjuntos/Heziberri_2020_c.pdf
- ◆ Junta de Castilla y Leon. (2016). Protocolo de coordinacion del trastorno por Déficit de Atención e Hiperactividad. 2. edizioa. Hezkuntza Aholkularitza.
- ◆ Mena, B., Nicolau, r., Solat, L., Tort, P. eta Romero, B. (2006). Guía Práctica para educadores. El alumno con TDAH. 2. Edizioa. Bartzelona: Mayo edizioa.
- ◆ Quicios, B. (2016). Diferencias entre niños hièractivos y movidos. Cómo saber si mi hijo es hiperactivo o simplemente es inquieto. Guia Infantil. Honako web orrialdetik berreskuratua: <https://www.guiainfantil.com/articulos/salud/hiperactividad/diferencias-entre-ninos-hiperactivos-y-movidos/>
- ◆ TDAH y tú. (2015). Detectar el TDAH en el entorno escolar. Reconocer el TDAH, el primer paso hacia el diagnóstico. Honako web orrialdetik bereskuratua: <http://www.tdahytu.es/detectar-el-tdah-en-el-entorno-escolar/>